



Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila
33.zk. 2004ko Ekaina

ingurumena.net

Zure esku dago



IHOBE

Ingurumen Jarraketarako Saretate Publikoa
Sociedad Pública de Gestión Ambiental

TOKIKO AGENDA 21

Prozesuetan PARTE HARTZEKO mekanismoak abian jartzeko gida



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEGIARLOU ARTELAMENDUA
ETA INGURUMEN SAIA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL
ESPACIO Y MEDIO AMBIENTE

Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila

- **1.zk. 2000ko Azaroa.** "Ingurugiroan Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-Administrazioak Egindako Gastu eta Inbertsioen Inpaktu Ekonomikoa"
- **2.zk. 2001eko Maiatza.** "2001 Ekobarometro Soziala"
- **3.zk. 2001eko Urria.** "Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan: Laburpena"
- **4.zk. 2002ko Urtarrila.** "Garapen jasangarriko Europako Batasunaren estrategia"
- **5.zk. 2002ko Otsaila.** "Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuen Inbentarioa" (Laburpena)
- **6.zk. 2002ko Apirila.** "Bizikletan,kerik gabeko hirietarantz"
- **7.zk. 2002ko Maiatza.** "Euskal Autonomia Erkidegoko Beharrezko Material Guztia. BMG 2002"
- **8.zk. 2002ko Uztaila.** "Garraioa eta Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan. GI 2002 Adierazleak"
- **9.zk. 2002ko Abuztua.** "Sustainable Development in The Basque Country"
- **10.zk. 2002ko Urria.** "Ingurumen Adierazleak, 2002"
- **11.zk. 2002ko Azaroa.** "Berotegi-efektua Eragiten Duten Gasen Emisioen Inbentarioa Euskal Autonomia Erkidegoan 1990-2000"
- **12.zk. 2002ko Azaroa.** "Ingurumena eta Lehiakortasuna Enpresan"
- **13.zk. 2002ko Abendua.** "2002ko Industria Ekobarometroa"
- **14.zk. 2003ko Urtarrila.** "Hiria, haurrak eta mugikortasuna"
- **15.zk. 2003ko Urtarrila.** "Klima-aldaketa"
- **16.zk. 2003ko Urtarrila.** "Jasangarritasunerako hezi. Eskolako Agenda 21: eskolarentzako gida" (CEIDA)
- **17.zk.2003ko Otsaila.** "Europako Erkidegoaren Ingurumeneko Seigarren Ekintza Programa"
- **18.zk. 2003ko Otsaila.** "Erreforma Fiskal Ekologikoa Euskal Herrian"
- **19.zk. 2003ko Apirila.** "Garapen Jasangarriari buruzko Johannesburg-eko Nazioarteko Goi-bilera"
- **20.zk. 2003ko Maiatza.** "Euskal Autonomia Erkidegoan Tokiko Jasangarritasunaren Adierazleak Kalkulatzeko Gida Metodologikoa. Tokiko Agenda 21-eko Adierazleak"
- **21.zk. 2003ko Maiatza.** "Ekoeraginkortasuna 2003"
- **22.zk. 2003ko Maiatza.** "Hirien plangintzan aplikatu beharre o jasangarritasun-irizpideak"
- **23.zk. 2003ko Uztaila.** "Berotegi-efektua Eragiten Duten Gasen Emisioen Inbentarioa Euskal Autonomia Erkidegoan (1990-2001)"
- **24.zk. 2003ko Iraila.** "Energia eta Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan. 2003"
- **25.zk. 2003ko Uztaila.** "Zementuaren sektorearen ingurumen-ekarpena Euskal Autonomia Erkidegoko Garapen Jasangarriari (2003-2006)"
- **26.zk. 2003ko Uztaila.** "Sektore Kimikoko enpresek Garapen Jasangarriari egiten dioten Ingurumen-ekarpena 2003-2006"
- **27.zk. 2003ko Urria.** "Altzairugintza Sektoreko Enpresek Garapen Jasangarriari egiten dioten Ingurumen-ekarpena (2003-2006)"
- **28.zk. 2003ko Azaroa.** "Euskal Autonomia Erkidegoko 2003ko Ingurumen Adierazleak"
- **29.zk. 2004ko Otsaila.** "2002 Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioen inbentarioa Euskal Autonomia Erkidegoan"
- **30.zk. 2004ko Martxoa.** "2004ko Ekobarometro Soziala"
- **31.zk. 2004ko Martxoa.** "Euskal Udallerriak autorik gabe 2003. Euskal Udallerriak Mugikortasun Iraunkorraren Bidean"
- **32.zk. 2004ko Ekaina.** "TOKIKO AGENDA 21. Abian Jartzeko Gida"
- **33.zk. 2004ko Ekaina.** "TOKIKO AGENDA 21. Prozesuetan parte hartzeko Mekanismoak abian Jartzeko Gida"

www.ingurumena.net/udala

Tokiko Iraunkortasuna lortzeko bidean Euskal Autonomia Erkidegoan

www.ingurumena.net

Gure Herriko Garapen Iraunkorraren inguruko Eusko Jaurlaritzaren orria

ARGITARATZAILEA: Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa – IHOBE, S.A.

DISEINUA: Dual XJ. Comunicación y Diseño

ITZULPENA: Elhuyar

EDUKIAK ETA ERREDAKZIOA: IGOP, Minuartia, Estudios Ambientals eta Sayma Consultores

© IHOBE 2004 • 2. argitalpena, 2005ko apirila

LEGE GORDAILUA: BI-1407-04



TOKIKO AGENDA 21

Prozesuetan **PARTE HARTZEKO**
mekanismoak abian jartzeko gida





Sabin Intxaurreaga

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu
eta Ingurumen Sailburua

A u r k e z p e n a

Gobernu Kontseiluak 2002ko ekainaren 4an onartutako 2002-2020ko Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategian, berrehun konpromiso agertzen dira, eta horiek betetzeko baldintzetako bat da *“herritarrak, administrazioa nahiz enpresak gaitzea, haiek ere erantzule egitea eta haien jokabideak aldatzea iraunkortasun handiagoa lortzera bideratzeko”*.

Parte-hartzeari esker, herritarrek aukera dute ingurumen-arazoak zuzenean ezagutzeko, baloratzeko, prebenitzeko eta hobetzeko. Iraunkortasunaren aldeko kultura sortzea banakakoen, taldeen, enpresen, erakundeen eta herritar-elkarteen ekarpenak baliatzen dituen prozesu bat da.

Europako Araudiaren Liburu Zuriaren arabera, politikak kalitate onekoak, egokiak eta eraginkorrak izan daitezen, behar-beharrezkoa da herritarrek parte hartzea, politikak zehazten hasi eta ezartzen diren arte. Parte-hartze sendo horri esker, konfiantza handiagoa izango dute azken emaitzetan eta politikak egiten dituzten erakundeetan.

Gida metodologiko honen helburuak dira, batetik, parte-hartzea sustatzeko heztea nahiz sentsibilizatzea eta, bestetik, zenbait lanabes ematea prozesu horiek dinamizatzeko; izan ere, udalek beren mekanismo propioak zehaztu behar dituzte.

Tokiko Agenda 21 prozesuek aukera ematen dute komunikazio-bide zuzen bat ezartzeko udalerriko eragile guztiekin. Hartara, herritarrek modu aktiboan parte hartuko dute Tokiko Agenda 21 prozesuko fase guztietan, diagnostikoak egitetik hasi eta tokiko ekintza-planetan zehaztutako jardueren segimendua egin eta ebaluatu arte.





A u r k i b i d e a



1. SARRERA	7
2. ZER ESAN NAHI DUGU PARTE-HARTZEAREKIN?	9
2.1. Zer da parte-hartzea?	9
2.2. Parte-hartze mota desberdinak daude?	9
2.3. Nork parte hartzen du?	11
3. ZERGATIK DA GARRANTZITSUA PARTE-HARTZEA?	12
4. PRINTZPIOAK ETA IRIZPIDEAK	14
4.1. Parte-hartzearen esparru orokorra	15
4.2. Mobilizazioa	16
4.3. Eztabaidetako dinamika	17
4.4. Parte-hartzearen emaitzak eta ondorioak	19
5. PARTE HARTZEKO MEKANISMOAK ETA TRESNAK	21
5.1. Parte hartzeko tresnen tipologia	21
5.2. Parte hartzeko tresna nagusien karakterizazioa eta ebaluazio orokorra	22
5.3. Eztabaidak dinamizatzeko teknikak	27
6. PARTE-HARTZEAREN DISEINUA, PLANGINTZA ETA EBALUAZIOA	30
6.1. Plangintza-esparrua	30
6.2. Parte hartzeko prozesuaren diseinua eta planifikazioa	32
6.3. Prozesuaren ebaluazioa	36
7. BIBLIOGRAFIA ETA ERREFERENTZIAK	38
7.1. Bibliografia	38
7.2. Interneteko guneak	38

I r u d i e n a u r k i b i d e a

1. irudia. Gidaren eskema kontzeptuala	8
2. irudia. Iraunkortasunerako tokiko eragileak	11
3. irudia. Politika Publikoak egiteko moduak	12
4. irudia. Parte hartzeko printzipioak eta irizpideak	14
5. irudia. Parte hartzeko prozesuaren diseinuan sartzen diren elementuak	31
6. irudia. Tokiko Agenda 21en parte hartzeko planifikazio-prozesua	35



T a u l e n a u r k i b i d e a

1. taula. Tokiko Agenda 21en parte hartzeko tokiko gobernuen estrategiak	10
2. taula. Tokiko Agenda 21en parte hartzeko mekanismoen sailkapena	22
3. taula. Tokiko Agenda 21en parte hartzeko tresnen ebaluazio nagusia	25
4. taula. Tokiko Agenda 21en dibulgaziorako guneak eta mekanismoak	33
5. taula. Parte hartzea ebaluatzeko adierazleak	37



1. S a r r e r a

Tokiko Agenda 21 diagnostiko-eredua eta iraunkortasun-politikak formulatzeko eredua da eta funtsezko bi kontzeptutan oinarritzen da: **zeharkakotasuna** eta **parte-hartzea**.

Lehenengoa, zeharkakotasuna, iraunkortasunaren sektore eta gai anitzeko izateari lotuta dago. Horrek eskatzen du jokoan dauden arazo eta erronketara modu integralean hurbiltzea, segmentazio antolatzaile zorrotza alde batera utzita. Tokiko Agenda 21en zeharkakotasunak hau eskatzen du: lan horizontalera irekitako kultura politikoak eta profesionalak eraikitzea, sailen arteko koordinazioa eta baliabideak eta asmoak trukitzea, betiere, kontuan hartuz, garapen iraunkorra ingurumenaren arlotik harantzako dagoela eta alderdi ekonomikoak eta soziokulturalak ere barne hartzen dituela.

Iraunkortasunaren oinarritzko bigarren parametroa parte-hartzea da. Nazio Batuen Agenda 21 dokumentuan (1992), bai eta oinarritzko beste dokumentu batzuetan ere, Europako Batasuneko Ingurumen Ekintzarako V. Programa esaterako, parte-hartzea garapen iraunkorren eredua lortzeko ezinbesteko kondizio gisa agertzen da. 2002ko abuztuan Johannesburgen egindako Garapen Iraunkorren Munduko II. Goi Bilerak eta Europako Batasuneko VI. Esparru Programak sendotzen dute ideia hori.

Garapen iraunkorreko prozesuetan parte-hartzeak beste bide batzuetatik lortu ezin daitezkeen informazio-elementuak eman behar ditu. Hori estrategia egokia izan daiteke gatazkak aurreikusteko eta erabaki publikoei zilegitasun handiagoa emateko. Hala, herritarren, eragile ekonomikoen eta sozialen artean erantzukizun-zentzua sor daiteke, eta, azken finean, elkarrizketa- eta akordio-sinergiak sortzen lagun dezake aipatu eragileen eta botere publikoen artean.

Tokiko Agenda 21eko prozesuak, beraz, eragile publikoek, pribatuek eta herritarrek osatutako sarearen parte-hartzearen bidez gauzatu behar dira, eta horietako bakoitzak garapen iraunkorren eredu berri baterantz aurrera egiteko funtsezko baliabideak emango ditu.

Testuinguru hori eta Tokiko Agenda 21en prozesuak modu eraginkorrean garatzeko sortzen diren beharrak kontuan hartuz, hona hemen gida honen oinarritzko helburuak:




- Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan, Tokiko Agenda 21eko prozesuetan herritarren **parte-hartzea sustatzeko** lanean sentsibilizatzea eta hezteak.
- Tokiko Agenda 21eko prozesuetan herritarren parte-hartzearen diseinua, ezarpena eta ebaluazioa erraztuko duten **esparru teorikoa** eta **tresna-eta baliabide-multzoa** zehaztea.

Dokumentu hau bost ataletan banatuta dago, 1. irudian erakusten den bezala. Atal horien asmoa da

Tokiko Agenda 21en parte hartzeko prozesuak martxan jartzeko alderdi teorikoak eta oinarritzko tresnak laburki azaltzea.

Gida hau Tokiko Agenda 21eko prozesuaren faseetan parte hartzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko udal-teknikarientzat eta udalez gaidikoentzat eta hautetsientzat egin da batik bat, eta modu osagarrian, tokiko erakundeentzat eta eragile ekonomikoentzat, baita udalerriei Tokiko Agenda 21en gainean aholkatzen dien ingurumen-eta komunikazio-enpresentzat ere.



1. irudia. Gidaren eskema kontzeptuala.



2. Zer adierazi nahi dugu parte-hartzeaz ari garenean?

Sarritan ideia eta kontzeptu orokorrak erabili ohi ditugu eztabaida-gai baten gainean hizkuntza komuna finkatzeko. Baina egoera zehatzak ulertzen edo azpimarratzen saiatzen garenean, zehaztasun handiagoaz azaldu behar izaten dugu zer esan nahi dugun ideia eta kontzeptu horien bidez, zein zentzurekin erabiltzen ditugun eta zein arlotan aplikatu nahi ditugun. Parte-hartzearen kontzeptua da horietako bat, eta atal honetan hobeto definitzen saiatuko gara.

2.1. Zer da parte-hartzea?

Definizio orokor gisa, esan dezakegu parte-hartzea bakarka edo taldeka –normalean, egoera jakin batean eragiteko asmoz– egin daitezkeen jarduera guztiak direla.

Tokiko Agenda 21en esparruan, parte-hartzearen barruan sartzen diren ekintzen bidez, herritarrek eta gainerako eragile sozialek (esparru politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak) beren herriko ingurumena eta iraunkortasuna hobetzeko prozesuan parte hartzeko aukera dute.

Tokiko Agenda 21en parte hartzeak ekintzarako BIDEA irekitzen du: herritarrei zein erakundeei beren lehentasunak adierazteko aukera eta udalerrian ingurumena hobetzea helburu duten jarduerak antolatzeke eta iraunkortasunerantz aurrera egiteko aukera ematen die.

2.2. Parte-hartze mota desberdinak daude?

Funtsezko galdera hauei erantzuten diegun moduaren arabera, parte hartzeko eredu ezberdinak bereiz ditzategu:

- **ZER**
- **NOR**
- **NOLA**
- **NOIZ**
- **NON**

ZER gairi buruz ari gara?

Gai hauetaz jardun daiteke:

- Udalerriko arazoak eta beharrak identifikatzea: **ingurumen-diagnostikoa, diagnostiko ekonomikoa eta diagnostiko soziala.**
- Udalerraren egoera hobetzeko egin beharko liratekeen ekintzak zehaztea: **tokiko ekintza-plana.**

- Ekintza horiek nola gauzatu diren zehaztea: Tokiko Agenda 21 **ezartzea** eta haren **segimendua** egitea.

Tokiko Agenda 21eko fase horietan, estrategia edo ekintza-lerro orokorrak lantzen direnean, gai **zabalez** jardun daiteke (adibidez, udal-antolamenduko plan orokorrari buruzko eztabaida); gai jakinak lantzean, berriz, gai **zehatzagoez** (parke edo berdegune baten kokalekua edo udalerrak birziklitzeko behar duen edukiontzi-kopurua).

NORK parte hartzen du?

Bi parte-hartze mota hauek bereiz ditzakegu:

- **Borondatezkoa:** parte-hartzea herritar guztiei zuzendurik badago.
- **Ordezkapenekoa:** erakunde, elkarte eta beste talde batzuetako ordezkariak (parte-hartze asoziatiboa) edo biztanleria osoa ordezkatzeko duen pertsona-talde batek (ausazko parte-hartzea) parte hartzen dutenean.

NOLA parte hartzen da?

Prozesuan parte hartzen dutenek maila bateko edo besteko konpromisoa izan dezakete. Kasu honetan, parte-hartzearen helburua hauetakoa izango da:

- **Informatzea:** adituek edo udal-gobernuak gai jakin bati buruzko informazioa ematen die parte-hartzaileei.
- **Kontsulta egitea:** parte-hartzaileei kontsulta egingo zaie gai bati buruz beren iritzia eman dezaten (galderak egin, adostasun-/desadostasun-maila adierazi).
- **Proposamenak jasotzea:** parte-hartzaileek, eztabaidatzen den gaiari buruz iritzia emateaz gain, proposamenak egin ditzakete.
- **Erabakiak hartzea:** parte-hartzaileek erabakiak hartzeko prozesuan ere parte hartzen dute.

Herritarren parte hartzeko moduaren arabera, parte hartzeko prozesuak, batetik, **mugatuak** izango dira informatzeko izaera badute eta/edo kontsultarako soilik badira, edo **zabalak**, bestetik, prozesu horiek proposa-

ESTRATEGIA	PARTE-HARTZEAREN HELBURU NAGUSIA	IREKITASUN-MAILA	PROZEDURA	UNEAK
Zuzendua	Espezifikoa. Udal-gobernuaren planen eta programen berri ematea herritarrei eta gainerako gizarte-taldeei. Ez da ez kontsultarik, ez elkarrizketarik egiten.	Mugatua. Erakunde eta talde antolatuei zuzendua batik bat.	Zeharkakoa. Udal-ordezkariek (teknikariak, politikoak) prozesua hasi, kontrolatu eta erabakiak hartzen dituzte.	Zehatza. Parte-hartzea erabaki-prozesuaren une jakin batean egiten da.
Elkarrizketa mugatukoa	Espezifikoa. Udal-politiken xehetasun batzuen berri ematea herritarrei eta herriko taldeei eta haien erreakzioa ezagutzea. Kontsulta-prozesua egiten da.	Mugatua. Erakunde eta talde antolatuei zuzendua batik bat.	Zeharkakoa. Udal-ordezkariek (teknikariak, politikoak) prozesua hasi, kontrolatu eta azken erabakiak hartzen dituzte.	Zehatza. Parte-hartzea prozesuaren une jakin batean egiten da.
Elkarrizketa irekia	Hainbat. Udal-politiken ildo orokorren berri ematea herritarrei eta herriko taldeei eta haien iritzia ezagutzea. Kontsulta- eta elkarrizketa-prozesua egiten da gizarte-eragileekin.	Ireakia. Erakundeei eta talde antolatuei zuzendua, baina baita herritarrei oro har ere.	Zeharkakoa. Herritarrek eta erakundeek beren iritzia eman eta proposamenak egin ditzakete, baina azkenean udal-gobernuak erabakitzen du kontuan hartuko diren ala ez.	Zehatza. Parte-hartzea prozesuko fase batzuetan egiten da.
Adostua	Hainbat. Udal-politiken ildo orokorren berri ematea herritarrei eta haien iritzia ezagutzea, eta egindako proposamenak udal-politiken diseinuari gehitzea. Herritarrekin etengabeko elkarrizketa egiten da.	Ireakia. Erakundeei eta talde antolatuei zuzendua, baina baita herritarrei oro har ere.	Zuzena. Herritarrek eta erakundeek proposamenak egiteaz gain, paper garrantzitsua dute udalari eragiten dioten erabakiak hartzeko prozesuetan.	Etengabea. Erabaki-prozesuak irekiak eta malguak dira eta herritarrek fase guztietan parte hartzen dute.

1. taula. Tokiko gobernuen estrategiak Tokiko Agenda 21en parte hartzeko.

menak egiteko eta erabakiak hartzean parte hartzeko aukera ematen badute.

NOIZ parte hartzen da?

Parte-hartzeak izaera hauetako bat izan dezake:

- **Aldi baterakoa/sintesikoa:** Parte-hartzea erabaki-prozesuaren une jakin batean egiten da. Gertakari zehatza eta bakana da.
- **Etengabea/prozesukoa:** Erabaki-prozesuaren fase guztietan har dezakete parte herritarrek.

NON egiten da?

Testuinguruaren ezaugarrien arabera ere izan daitezke parte hartzeko prozesuak. Alderdi hauen arabera, parte-hartzea desberdina izango da:

- **Udalerriaren tamaina** (txikia eta landatarra; hiritarra eta handiagoa).
- **Sare asoziatiboaren ezaugarriak** (herriko erakunde eta taldeen kopurua, jarduera nagusiak, haien eta udalaren arteko harremana).

Tokiko gobernuek galdera horiei ematen dizkieten erantzunek zehaztuko dute neurri handi batean herritarren parte-hartze mota. Alderdi horretatik, Tokiko Agenda 21en parte hartzeko prozesuak antolatze orduan hainbat estrategia erabili ahal izango dituzte


Tokiko Agenda 21en esparruan, parte hartzeko prozesuek ez dute eredu bakarra, aitzitik, hainbat parte-hartze mota konbinatzen dituzte eztabaidatzen den gaiaren arabera, parte-hartzaile moten eta haiek prozesuan duten konpromiso-mailaren arabera eta udalerrri bakoitzaren ezaugarrien arabera.

tokiko gobernuek (1. taulan). Lau mailatan banatutako sailkapen posiblea erakusten da.

2.3. Nork parte hartzen du?

Ingurumen-kalitatearen hobekuntza eta garapen iraunkorerrantz aurrera egitea alderdi hauen arabera egongo da herri mailan: biztanleria osoak modu zabalean zenbateraino parte har dezakeen eta helburu ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak behar bezala zenbateraino integra daitezkeen. Hori dela eta, Tokiko Agenda 21en parte hartzeko prozesuetan, gizarteko hainbat sektoretako eragileek parte hartu beharko lukete (2. irudian). Tokiko Agenda 21eko prozesuetan parte har dezaketen gizarte-eragileen sailkapena ikus daiteke.

Tokiko Agenda 21en parte hartzeko prozesuetan, arlo sozial, politiko eta ekonomikoko eragileak sartzen dira.



2. irudia. Iraunkortasunerako tokiko eragileak.



3. Zergatik da garrantzitsua parte-hartzea?

Zergatik nahi dugu parte-hartzea lehendik demokrazia baldin badugu? Herritarren interesak kontuan hartu eta ordezkatzan dituzten alderdi politikoak ditugu, gobernuko maila desberdinetako ordezkariak aukeratzeko bidea ematen diguten hauteskundeak ditugu, oposizio-funtzioak egiten dituzten ordezkari politikoak ditugu... Zergatik uste dugu, orduan, beharrezkoa dela parte hartzeko demokraziaren esparru berriak sortzea?

Lehenik eta behin, demokraziak zer esan nahi duen hartu behar da kontuan eta, beraz, galdera horren erantzuna ideia eta balioetan oinarriturik dago. Hala ere, parte-hartzea justifikatzen duten beste arazo batzuk ere badaude: oinarrian, zenbat eta konplexuagoak izan eztabaidatu beharreko arazoak eta zenbat eta zalantza gehiago izan, orduan eta beharrezkoagoa izango da herritarrak eta eragile sozialak, politikoak eta ekonomikoak kontuan hartzea. *Parte hartzeko sare horien esparruan sortu ahal izango dugu akordioak lortzeko, gure inguruko errealitatea ezagutzeko eta gizarteko beharretara hobekien egokitzen diren irtenbideak hartzeko gaitasun handiagoa.*



	Gatazka-maila txikia	Gatazka-maila handia
Jakintza-maila handia	Programazio teknikoa [1] (parte-hartze nulua)	Negoiazio politikoa [2] (parte-hartze eskasa)
Jakintza-maila txikia	Esperimentazioa [3] (hondar-partaidetza)	Ikaskuntza soziala [4] (parte-hartze handia)

3. irudia. Politika Publikoak egiteko moduak.

ITURRIA: Subirats-etik egokitua, 1997.

Begira dezagun 3. irudia. Lau egoera hipotetiko azaldu ditugu:

- **[1.] laukian**, arazo sozial simple bat dugu: **argi eta garbi dakigu zein den arazoa**, zergatiak ezagutzen ditugu, arazoa bideratzeko alternatibak zein diren badakigu, baina bakoitza nola gauzatu ere, eta alternatiba bat edo bestea aplikatzearen ondorioak zein diren segurtasunez jakin dezakegu; gainera, **ez da gatazka handirik sortzen duen arazoa**, denok ados gaude irtenbide onenari dagokionez. Horrelako egoera batean, justifika daiteke teknikariek eta ordezkari politikoek bakarrik aztertzea egoera eta dagozkion erabakiak hartzea. *Horrela joka daiteke argiztapen publikoko ohiko bonbillak kontsumo baxuko bonbillekin ordeztan.*
- **[2.] laukian**, konpondu beharreko arazoa **oso ondo ezagutzen** dugu (zergatiak, alternatiba posibleak eta ondorioak), baina **interesen arteko gatazka** dago ondo antolatutako eragile sozialen artean, hainbat sektore sozialetako ordezkarien artean. Horregatik, beharrezkoa da negoziazio politikorako mekanismoak bilatzea interesatuen artean, eta hor administrazioak gatazkaren alderdi eta bitartekoaren papera joka dezake. *Egoera hau ohikoa da lan-merkatuan gertatzen diren hainbat gatazketan.*
- **[3.] laukian, ez dago arazorik**, ez da egoeraren dilema. Arazoa da **ez dugula ziurtasunik** heldu beharreko arazoari buruz. Arazoaren zergatiak ez ditugu zehazki ezagutzen, ez

gaude ziur nola adierazten den arazoa, ezta nola garatzen den ere, eta hura konpontzeko alternatibak ez dira argiak. Zalantzazko egoera baten aurrean gaude. Horrelako egoeretan, esperimentatu egin behar da konpondu beharreko egoera hobeto ezagutzeko, alternatibak aurkitzeko eta arazoarekiko ekintza desberdinek duten eragina zehatzago ezagutzeko. Ziurgabetasun honen adibide egokiak dira zientifikoki ezagutzen ez diren *epidemia eta gaixotasun jakinei aurre egiteko diseinatzen diren osasun-politikak*.

- **[4.] laukian, gatazka garrantzitsuak eta zalantza handiak** aldi berean gertatzen diren egoera azaltzen da. Arazo honetan interesak jokoan dituzten edo gutxienez adierazi beharreko iritziak dituzten hainbat eragile daude (sindikatuak, enpresak, alderdi politikoak, unibertsitateak, fundazioak, elkarteak, gizarte-mugimenduak, pertsonak, hainbat gobernu-maila...). Gainera, badakigu arazoari buruzko pertzepzio oso bestelakoak daudela, ez desberdinak bakarrik, baita kontrajarriak ere, eta beraz, potentzialki gatazkan daudenak. Bestalde, agian gatazkaren konplexutasunagatik eta ziur aski baita beste arrazoi batzuegatik ere, ziurgabetasun handiko egoera baten aurrean gaude: nola defini dezakegu arazoa, definizio objektibo posiblerik baldin badago behintzat? Zein dira hura konpontzeko alternatibak? Zein ondorio izango lukete alternatiba horiek? *Egoera horren adibide dira iraunkortasunari buruzko politikak*.

Gure gizartean, 4. laukian adierazten den egoerarekin zerikusia duten gero eta arazo gehiago daude (ingurumenekoak, ekonomikoak, sozialak, kulturalak). Testuinguru horretan, hartutako erabakien zilegitasuna sendotu nahi badugu eta haien eraginkortasuna indartu nahi badugu, parte hartzeko guneak sortu beharko dira. Gune horietan, hainbat eragilek errealitateaz dakitena berri ematen dute, beren iritziak adierazten dituzte, alternatibak denon artean aztertzen dituzte, irtenbideak negoziatzen dituzte eta emaitzak ezartzeko konpromisoa hartzen dute. Horrelako egoera sortu ohi da Tokiko Agenda 21eko prozesuetan aztertzen diren politiketan.

Hain zuzen, ziurgabetasun- eta konplexutasun-egoera baten aurrean, ingurumen- eta iraunkortasun-politikak egitean adibidez, parte-hartzeak hainbat abantaila dakartza:

- Errealitatea **hobeto ezagutzea** (ziurgabetasunari aurre egiteko gaitasun handiagoa)
- Arazoak definitzeari buruz eta lehentasunak ezartzeari buruz **akordioak lortzeko gaitasun handiagoa**
- Gatazkan dauden **interesen artean bitartekotza** egiteko gaitasun handiagoa
- Ideia gehiago mahai gainean, **berrikuntzarako gaitasun handiagoa**

- **Zeharkakotasun** handiagoa, integrazteko gaitasun handiagoa administrazioaren barruan (parte-hartzea antolamendu-aldaketaren eragilea da administrazio publikoan)
- Politikak ezartzeko **baliabide gehiago**, helburuak lortzeko **konpromisoa** hartu duten **eragile gehiago** egongo baitira (sozialak, politikoak, instituzionalak)
- **Gizarteko** beharretara eta **eskaerretara** hobeto **egokitutako** politikak
- Informazio gehiago duen, hobeto prestatuta da goen eta **parte hartzeko joera handiagoa** duen biztanleria; herritarrekiko **elkarrizketarako eta ulertzeko gaitasun handiagoa** duten teknikariak; herri **koheSIONATUAGOA**, **nORTASUN** sendoagoarekin eta gatazkak demokratikoki konpontzeko gaitasun handiagoarekin. 'Parte-hartzearen hezkuntza-ondorioak' deiturikoak dira.

Hausnarketa hau Tokiko Agenda 21en esparrura eramaten badugu, parte-hartzeak hainbat alderditan lagunduko digu:

- **Diagnostikoa egiteko**, parte-hartzearen bidez udalerriko errealitateari buruzko datu objektiboak baino harantzago joan gaitzke, eta eragile ekonomiko, sozial eta instituzionalen ingurumenearekin eta iraunkortasunarekin lotutako **balioak, pertzepzioak eta jarrerak ezagutzeko aukera** izan dezakegu, baita hainbat gizarte-talderenak ere, alegia, iraunkortasunerako bidean funtsezkoak izango diren ekintzak egiten dituzten taldeenak. Ondorioz, informazio gehiago, kalitate hobekoa eta pluralagoa izango dugu. Hau da, errealitatearen diagnostikoa egiteko dugun gaitasuna aberasten du parte-hartzeak.
- **Tokiko ekintza-plana egiteko**, gauzak *zer* eta *nola* egiteari buruzko iritzi desberdinak adierazteko aukera ematen du parte-hartzeak, eta interesen eta balioen arteko gatazka demokratikoki kudeatzeko bidea ematen du horrek. **Akordioak lortzeko eta egon daitezkeen adostasun-guneak aurkitzeko**, beharrezkoa izango da iraunkortasunerako bidean parte hartzen duten eragile guztien arteko eztabaida.
- **Tokiko Agenda 21 ezartzeko**, parte-hartzeak ezinbestekoa du iraunkortasuna ez egotea tokiko administrazioaren mende soilik, baizik eta **garapen iraunkorrago lortzeko helburuarekiko konpromisoa** hartu duten hainbat eragile eta talde sozialen ekintza eta portaeren mende ere egotea. Parte-hartzeak Tokiko Agenda 21en ezarpen-mailaren **kanpoko segimendua** egitea ere eska dezake, helburuak eta hartutako konpromisoak betetzen direla zaintzeko.



4. Printzipioak eta irizpideak

Parte-hartze publikoko prozesuak martxan jartzen ditugunean, prozesu horiek **planifikatzen, gauzatzen eta ebaluatzen** lagunduko diguten printzipio eta irizpide orokor batzuk kontuan hartu behar ditugu.

Parte-hartzearen hainbat alderdi edo dimentsioren arabera sailkatu ditugu printzipio eta irizpide horiek, horien esanahia identifikatu eta aztertzeko (ikus 4. irudia):

1. Parte hartzeko prozesua garatzen den **esparru orokorra**: zehazkiago, zein eragile konprometitu diren parte hartzeko prozesua martxan jartzeko, nork hartu duen prozesu hori garatzeko konpromisoa eta nor har dezakegun kontuan emaitzak aplikatzeko; esparru orokorrak jokoaren helburuei eta arauetara ere egiten die erreferentzia.
2. **Mobilizazioa**: hau da, nork parte hartzen duen eta nork ez; zenbat pertsonak parte hartzen duten; zein den parte hartzen dutenen profila; parte-hartzaileen profilak eta biztanleria osoarenak zenbaterainoko antza duten edo joera nabarmenak sortzen diren; zein pertsona- edo eragile-motek ez duten parte hartzen edo neurri gutxiagoan parte hartzen duten.
3. **Eztabaidetako dinamika**: hor kontuan hartu behar da parte-hartzaileek duten informazioa zein neurritaraino den nahikoa kantitateari eta kalitateari dagokienez, eta plurala eta ulergarria den guztiak behar bezala erabili dezaten; parte-hartzaileek bere iritzia zein neurritaraino aditzera eman dezaketenean askatasunez eta berdintasun-kondizioetan.
4. Parte hartzeko prozesuaren **emaitzak** edo **ondorioak**: zein erabaki hartu diren, zein neurritan gauzatu diren, parte hartzeko prozesuak beste ondoriorik izan duen erabakiak hartzeko prozesu publikoan eragiteaz gain (parte hartzeko hezkuntza, konfiantza eragile sozialen artean, sentsibilizazioa landu diren gaiekiko, etab.).

Esan behar da horiek guztiak irizpide desiragarriak direla. Parte hartzeko prozesua gidatzen laguntzen digute, baina ezin izango dira beti lortu, eta are gutxiago denak batera eta ezin hobeto.

ESPARRU OROKORRA

- Akordio politikoa
- Akordio soziala
- Akordio teknikoa

MOBILIZAZIOA

- Parte-hartze zabala
- Ordezkapenezko parte-hartzea

EZTABAIDETAKO DINAMIKA

- Informazioa aurrez, ulergarria, zehatza eta plurala
- Eztabaida orekatua eta plurala
- Eztabaida erakargarria eta funtzionala

EMAITZAK/ONDORIOAK

- Eragina politiketan
- Parte-hartzea bultzatzen duen kultura sortzea

4. irudia. Parte hartzeko printzipioak eta irizpideak.

ITURRIA: guk egin.

4.1. Parte-hartzearen esparru orokorra

Nola hartzen da parte hartzeko prozesu bat martxan jartzeko erabakia? Nork hartzen du aurrea, zein eragileren adostasun eta konpromisoarekin eta zein helbururekin?

Parte hartzeko prozesu bat martxan jartzeko **beharezkoa** da **akordio** batzuk lortzea (politikoa, soziala eta teknikoa). Akordio horiek lehendik badaude eta haiei eusten bazaie, asko erraztuko dute prozesuaren funtzionamendua. Zintzotasunean oinarrituz, **helburu argi eta errealistak** ere zehaztu behar dira prozesurako.

Akordio politikoa

Idealtzat harturik, parte hartzeko prozesuak akordio politiko zabal batean oinarrituta egon beharko lukete, eta gobernuaren eta, ahal den neurrian, oposizioko taldeen partaidetza eragin beharko luke.

Zergatik?

Funtsean, bi arrazoi hauengatik:

- Jendeak pentsa ez dezan parte hartzea gobernuko partiduarekin bat etortzea dela, eta, ondorioz, nortasun politiko desberdinak dituzten talde eta eragileak parte hartzera bultzaturik senti daitezten.
- Alderdi politiko guztiek har dezaten, hain zuzen, parte hartzeko prozesuaren barruan hartzen diren erabakiak ezartzeko konpromisoa.

Zein oztopo aurreikus dezakegu?

- Oposizioko alderdiek uler dezakete parte hartzeko prozesuaren arrakasta, politikoki eta hauteskundeei dagokienez, gobernuko alderdiaren onurarako izan daitekeela.
- Alderdi guztiak ideologikoki ez dira bat etorriko parte hartzeko proposamenarekin, ezta iraunkortasunaren helburuekin ere.

Zein estrategia erabil dezakegu?

- **Jokoaren arauak negoziatzeko** prest egon behar da: horretarako, baliagarria izan daiteke alderdi politiko guztien ordezkariak duen segimendu-batzordea sortzea. Batzorde horren funtzioa izango da parte hartzeko prozesuaren diseinuari eta garapenari eragiten dioten erabakiak hartzea.

Akordio soziala

Eragile sozial nagusiekin ere (auzoko mugimendua, sindikatuak, elkarteak, GKEak, unibertsitateak, profesionalen taldeak) akordioa lortu behar da, parte hartzeko prozesuaren garapenarekiko duten konpromisoa bermatu ahal izateko.

Zergatik?

- Ideia hau sendotzen lagunduko duelako: martxan jartzen den parte hartzeko prozesua 'guztiona' da eta ez gobernuaren soilik.
- Ildo horretatik, eragile sozialek eta herritarrek, oro har, errazago parte hartuko dute, eta, hala, parte-hartze zabalagoa eta pluralagoa lortuko da.

Zein oztopo aurreikus dezakegu?

- Instituzioek jokoaren arauak aurrez zehazten badituzte, eragile sozialek uste izango dute manipulatuak izango direla eta ez zaiela utziko parte hartzeko prozesuaren barruan askatasunez adierazten.
- Eragile sozialek, beste eragile guztien moduan, ezaugarri horiek dituen prozesu batean konpromititzek dakartzan gastuen eta etekinen kalkulua egiten dute, eta, ondorioz, eskatzen dute ziurtatzea beren parte-hartzeak ondorio nabarmena izango duela hartzen diren azken erabakietan.

Zein estrategia erabil dezakegu?

- **Kolektiboan inbentarioa** egitea sentikortasunen arabera, haiek hobeto identifikatzeko.
- Abiapuntu gisa, **batzarra** egin daiteke hainbat kolektibotako **ordezkari**ekin ekimenaren berri emateko eta haien laguntza eskatzeko.
- Baina hori ez da nahikoa izango, **jokoaren arauak** eragile sozialekin **negoziatzeko prest** egon behar da, eta, horretarako, ordezkari sozialak segimendu-batzordean sartzea komeni da.
- Parte hartzeko prozesuaren **emaitzak** gauzatu egingo direla bermatu behar da, eta, edonola ere, prozesuaren helburuak eta emaitzak ezartzeko dauden mugak (antolatzaileak, juridikoak, finantzarioak) argi utzi behar dira.

Akordio teknikoa (zeharkakotasuna)

Azkenik, akordio zabal bat lortu behar da administrazioaren barruan. Akordio horrek landu beharreko gaiekin zerikusia duten arloetako teknikariak eta politikoak parte hartzeko prozesuarekiko konpromisoa hartzera bultzatuko ditu.

Zergatik?

- Iraunkortasunaren kontzeptuari buruz modu integralean aritu nahi duen Tokiko Agenda 21ek ingurumen-zinegotzigotik harantzago joan behar du eta herriko garapen iraunkorrerako funtsezkoak diren beste arlo batzuk konprometiarazi behar ditu (hirigintza, ekonomia, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak...).
- Arlo horiek inplikatzeko ez badira, baliteke Tokiko Agenda 21en azken edukia ez onartzea gobernuko

egitura osoak. Aitzitik, parte-hartzea ingurumen-zinegotzigoak eskumenak dituen gaietara soilik mugatzen bada, parte-hartzaileen itxaropenak zapuztu egingo dira..

Zein oztopo aurreikus dezakegu?

- Administrazioetako antolamendu-kultura nagusiak ez dio askorik laguntzen zeharkakotasunari, aldiz, isolamendurako joerak edo gobernuko arlo-en arteko lehia bultzatzen du.

Zein estrategia erabil dezakegu?

- Garrantzitsua da **helburu argi eta errealistak** izatea: horiek gabe, zaila izango da lehen aipatutako akordioak (politikoa, soziala eta teknikoa) lortzea. Parte-hartzaileen artean itxaropen faltsuak sortzen badira, prozesu guztiaren aurka joan daitezkeen frustrazio-sentimendu sendoak sorraraz daitezke.
- Garrantzitsua da alkatetzak edo gobernuko arduradun nagusiak prozesu osoaren **gidaritza politiko** sendoa izatea, baita gobernu-batzordeak prozesuaren garapena kolektiboki beren gain hartzea ere.
- Baliagarria izan daiteke **lan-batzorde teknikoa** osatzea prozesuan parte hartzea nahi den arloetako ordezkari teknikoekin.

4.2. Mobilizazioa

Nork parte hartzen du eta nork ez? Zergatik? Zein ondorio ditu horrek guztiak parte hartzeko prozesuaren zilegitasunerako? Nola lor daiteke kolektibo zabal eta adierazgarri baten parte-hartzea?

Parte-hartze zabala

Idea sinplea da: zenbat eta jende gehiagok parte hartu, hobeto. Baina horri muga jartzea zaila da. Horregatik, ezartzen dugun irizpidea generikoa da.

Zergatik?

- Arrazoiak ere bistakoak dira: zenbat eta parte-hartzaile gehiago izan, orduan eta onespen eta zilegitasun handiagoa izango du parte hartzeko prozesuak, bai prozesuan parte hartu duten eragile instituzional, politiko eta sozialen artean, bai aktiboki parte hartu ez duten kolektiboen artean.

Zein oztopo aurreikus dezakegu?

- Parte-hartze zabala lortzea ez da erraza. Kontuan hartu beharreko lehen oztopoa herritarren mobilizazio falta izango da segur aski, eta horrek era askotako arrazoiak eta arrazoi konplexuak izan

ditzake oinarrian: zailtasun objektiboak (lanagatik, familiako konpromisoengatik); publikoarekiko axolagabekeria orokorra; prozesua sustatzen duen erakundearekiko errefusa; eszeptizismoa parte hartzeko prozesuaren eraginari dagokionez; etab.

- Baina arazoa horrela azaltzen bada, nolabait jendeari egozten zaio partaidetzarik ez izatearen "errua", eta benetan, kontrol instituzionalaren mende dauden faktoreen ondorioz gertatzen dira mobilizazio-prozesuaren porrotik gehienak. prozesuaren publizitate falta (jende askok ez du prozesuaren berri izaten); helburuaren gehiegizko definizio generikoa (ez da argi gelditzen zer lortu nahi den prozesuarekin eta zein asmorekin egin nahi den); emaitzak aplikatzearekiko konpromiso argien falta (beste kasu batzuetan hala frogatu dena); landu beharreko gaien formulazio desegokia edo parte hartzeko guneen diseinu desegokia (kolektibo batzuk parte hartzeko prozesutik sistematikoki kanpoan uztea ekar dezake horrek).

Zein estrategia erabil dezakegu?

- **Publizitatea** egiteko estrategia egokiak erabiltzea, parte hartzeko prozesua ezagutarazten laguntzeko eta hainbat kolektiborentzat hasieratik erakarria izaten laguntzeko.
- Parte hartzeko prozesuari dagokionez, erakundearen helburuak eta **konpromisoak** argi azaltzea publikoki.
- **Kontzientziazio**-hitzaldiak antolatzea.
- **Sektore sozialaren** laguntza izatea herritarren mobilizazioaren eragile gisa.
- Parte hartzeko prozesua behar adinako **malgutasunaz eta sormenaz** diseinatzea, kolektiboak parte hartzera bultzatuta senti daitezen (zein gaik bultzatzen duen jendea parte hartzera eta zein ingurunetan sentitzen den eroso, eta zeinetan ez, pentsatu behar da).

Parte-hartze adierazgarria

Parte-hartze zabala izateak ez du esan nahi automatikoki adierazgarria denik. Adierazgarritasun-irizpideak prozesuan parte hartzen duten pertsonen eta taldeen ezaugarriei eta profilari egiten die erreferentzia: zein dira eta zein ezaugarri berezi dituzte sektore sozialaren eta, oro har, biztanleriaren ezaugarriekin konparatuz? Lehen aipatu dugu hainbat talde eta eragile politiko eta sozial prozesuan inplikaturik egoteko beharra, baina ez sustatzaile gisa bakarrik, baita parte-hartzaile gisa ere. Orain, parte hartzen duten pertsonen banakako ezaugarriak azpimarratuko ditugu: gizonen eta emakumeen proportzioa zein den, zein adin duten edo zein den beren prestakuntza-maila eta posizioa lan-merkatuan. Horrenbestez, parte-hartze adierazgarriaz hitz egiten denean esan nahi da laginak baduela halako aniztasuna eta **parte hartzen dutenen profila biztanleria osoaren profilaren antzekoa** dela.

Zergatik?

- Parte hartzen dutenen adierazgarritasuna funtsezkoa baita parte hartzeko prozesuan gizartean benetan dagoen iritzi-aniztasuna adierazi ahal izateko.

Zein oztopo aurreikus dezakegu?

- Politikaren eta partaidetzaren formatu 'klasikoak' pertsona helduei (nagusiki gizonei) zuzendurik egon ohi dira batik bat, oso politizatuta eta informatuta dauden pertsoneri, eztabaida luzeetan aktiboki parte hartzeko gaitasuna eta prestasuna dutenak. Beste kolektibo batzuk (adibidez, gazteak, etorkinak, hirugarren adineko pertsonak), berriz, ez dira sentitzen horrelako foroetan parte hartzea bultzatuta: denbora faltagatik, informazio faltagatik, beren gaitasunean konfiantza ez izateagatik, erabiltzen den hizkuntzarekin bat ez etortzeagatik...
- Tokiko Agenda 21en ezagutzen ditugun prozesuetan ingurumenaren arazoarekiko sentikortasun handiagoa duten pertsonak eta eragileek parte hartu ohi dute. Aitzitik, iraunkortasunarekiko hain sentikorak ez diren sektoreen partaidetza falta nabari izan ohi da.
- Parte-hartzearen beste arazo nagusi bat izan ohi da partaidetza ez dela plurala izaten ordezkatzen diren interes eta balio politiko, kultural, sozial eta ekonomikoen ikuspuntutik.

Zein estrategia aurreikus dezakegu?

- **Kolektiboen aniztasuna identifikatzea** eta parte hartzeko dituzten motibazio potentzialak aztertzea, zein gaitan sentituko lirartekeen erosoago, zein gunetan edo zein kondiziotan.
- **Gonbit- eta motibazio-prozesu pertsonalizatuak** egitea, alegia, kolektibo zehatzei zuzenduak.
- **Publizitate- eta mobilizazio-estrategiak** kolektibo eta erakunde aniztasunera egokitzea, jakinarazi nahi dugun mezua guztiei iritsiko zaiela ziurtatzeko.
- Antolamendu-formatuak kolektiboen **aniztasunera** egokitzea.



- Lehen fasean **saio sektorialak** egitea (sektore bereko kolektibo eta erakundeekin bilerak), eta horiek hurrengo fase batean integratzea, behin prozesuan konprometitu direnean.
- Identifikatutako kolektibo guztiek, nola edo hala, **ordezkapena** izan beharko lukete parte hartzeko organo nagusietan (foroa, batzordea, batzordea 21...).

4.3. Eztabaidetako dinamika

Behin parte hartzeko jendea bilduta, nola antolatu behar dira eztabaidak? Batetik informazioari eta bestetik eztabaidari berari erreferentzia egiten dioten hainbat irizpide kontuan hartu behar dira.

Informazioa: aurrez, ulergarria, zehatza eta plurala

Garrantzitsua da informazioa aurrez ematea, guztientzat ulergarria izatea, zehatza izatea (oinarrizko alderdiak aipatu gabe utzi gabe) eta plurala izatea (gai berari buruzko hainbat ikuspegi izatea).

Kontuan izan behar da parte hartzeko gune batzuk gai jakin bati buruz jendeak dituen jarrerak eta ikuspegiak identifikatzeko eta ulertzeko pentsatuta daudela bati bat, eta, beraz, kasu horietan ez da hain garrantzitsua izango jendeak zein informazio duen. Dena den, informazioa parte hartzeko prozesu ororen funtsezko osagaia da.

Zergatik?

- Informaziorik gabe, jendearen azaleko iritziak soilik jaso ahal izango ditugu, eta ez behar bezala arrazoitutako iritziak, eztabaidatzen diren gaien ezagutzan oinarriturik.
- Informazioa emateak eragileen eta kolektiboen arteko eztabaida oreka dezake, hasieran gaiari buruzko informazio desberdina eduki baitezakete bi aldeek. Hala, parte hartzen duten guztiek kondizio berdinetan egiten dutela ziurta daiteke.

Zein oztopo aurreikus dezakegu?

- Hasieratik informazio asko duten kolektiboak daude, eta beste batzuk, berriz, oso informazio gutxi dute edo ez dute ezagutzen eztabaidagaia.
- Erakundeek informazio ugari izaten dute, baina ez dira beti prest egoten hura partekatzeke.
- Udal-administrazioak duen informazioa oso zati-tuta egoten da hainbat arloren artean (udaleko zinegotzigoak), eta ez dute beti beren artean partekatzen.
- Administrazioez gain, beste hainbat eragileriek edukitzen dute informazioa, baina aitzakiaren bat

eman dezakete informazio hori gainerako eragile sozialekin ez partekatzeko.

- Datu batzuk aurkezteko erabiltzen den hizkuntza edo modua dela eta, gai horretan adituak ez diren parte-hartzaileek ulertzeko arazoak izan ditzakete.
- Alderdi batzuek lantzeko, informazioaz gain, presakuntza ere behar izaten da; ondorioz, ikaste-prozesu motel eta konplexu batez hitz egiten ari gara, beti eztabaidaren bidez konpondu ezingo dena.

Zein estrategia erabil dezakegu?

- Arretaz aztertzea zein diren informazio garrantzitsua duten **funtszeko eragileak** eta eztabaidarako zein den informazio nagusia.
- **Informazioa behar adinako aurrerapenarekin ematea**, parte-hartzaileek hura aztertzeko eta asimilatzeke denbora izan dezaten.
- Eztabaidaren alderdirik garrantzitsuenetan jartzea arreta eta **informazio gehiegi ez ematea** nahasketarik ez sortzeko.
- **Informazioa** aurkezteko modua **guztientzat ulergarria** izatea: bai erabiltzen den hizkuntzari dagokionez, bai aurkezten diren datuei dagokionez.
- Eztabaidetan **teknikiariak eta adituak** egotea, beharrezko informazio ulertzen laguntzeko.
- Eztabaidarako zein den ezinbesteko informazio tekniko eta zein ez bereiztea, parte hartzeko prozesua **erabakiak hartzeko funtszeko alderdian oinarritu** dadin batik bat.

Eztabaida orekatua eta plurala

Eztabaida orekatua eta plurala izan dadin, garrantzitsua da kondizio egokiak sortzea.

Zergatik?

- Eztabaida orekatuak eta pluralak iritzi guztiak askatasunez eta berdintasun-kondizioetan adieraztea bermatzen laguntzen du, eta horrek batzuek besteengandik ikastea egiten du, ikuspegiak trukatu; horrez gain, gehiago edo gutxiago gehiengoaren iritziak inposatzeko beharrik gabe, akordioak lortzen laguntzen du.

Zein oztopo aurreikus dezakegu?

- Parte-hartzaileen arteko desberdintasunak, publikoki hitz egiteko gaitasunari, informazioari eta ahalmenari dagokionez, eztabaida urri eta desorekatu bihurtzen dira.
- Aurretiko gatazka oso barneratuek oztopatu egin dezakete eragile jakin batzuen arteko eztabaida normalizatua eta arina.

- Pertsona batzuek modu irekian ez hitz egiteko joera izan dezakete hainbat arrazoiengatik: beren buruarekiko konfiantza falta, gutxiengoan egoteko beldurra edo errepresaliak izateko beldurra eztabaidatzen den gaia ulertzeko zailtasunak izateagatik, besteak beste.

Zein estrategia erabil dezakegu?

- **Eztabaidarako eta parte-hartzea** bideratzeko **hainbat esparru** bateratzea, kolektiboen aniztasunera eta sentikortasunera egoki daitezten: galdera-sortak, elkarrizketa pertsonalak, eztabaida-taldeak profil bereko pertsonekin, batzarrak, lan-taldeak.
- Eztabaidarako **jokoaren arau garbiak** eta denek ezagutzen dituztenak sortzea, bereziki, parte-hartzaileen artean askotariko jendea dagoenean.
- Eztabaidetan **moderazio-lan aktiboa** egitea beti, jokoaren arauak errespetatuz. Talde-dinamikan espezializatutako pertsonak eta, ustez behintzat, jokoan dauden interesak defendatzen ez dituztenek egin beharko lukete lan hori.

Eztabaida erakargarria eta funtzionala

Garrantzitsua da parte-hartzaile guztientzako erakargarria den eztabaida-dinamika bat diseinatzea; parte-hartzaileek ikusiko dute horretarako erabiltzen den denborak erabilera argia duela.

Zergatik?

- Parte-hartzaileen sektorentzat eztabaidaren dinamika oso erakargarria ez bada, eragin negatiboa izango du prozesuaren garapenean, eta saioetan jarrera pasiboagoa hartzera bultzatuko du.
- Saioan garatzen den eztabaidaren emaitzak atzemaitea zaila baldin bada, parte-hartzaileak ez dira motibatuta egongo beste saio batzuetara itzultzeko edo jarrera konstruktiboagoa izateko.

Zein oztopo aurreikus dezakegu?

- Eztabaidan aipatutako elementuek eztabaidako gaiari buruzko politika publikoetan zein eragin izan dezaketen jakiteko zailtasuna.
- Parte-hartzaileen itxaropen-, interes- eta gaitasun-aniztasuna.
- Denbora-muga.

Zein estrategia erabil dezakegu?

- **Dinamizatzaileak** izendatzea, eztabaidaren helburuak azaltzeko, ideiak elkarrekin lotzen laguntzeko eta eztabaida eta parte-hartzaileen arteko ulertzea sustatzeko.
- Parte hartzeko teknikak sartzea parte-hartzaileen artean **elkarreragin handiena** lortzeko, **hainbat**



maila teknikitako ekarpenak egiteko aukera emanez.

- Fase bakoitzaren **iraupena** argi **mugatzea**, motibazio txikiagoa duten sektoreak nazkatu eta saioa amaitu aurretik alde egin ez dezaten.
- Ekarpn bakoitzak eztabaidatzen den diagnostikoan edo politikan duen eragina (aldaketa edo zabaltze gisa) **une oro ikustea** egitea duen dinamika ezartzea.
- Normalean, denbora oso mugatuan ahalik eta ekarpen gehien biltzen laguntzen duen **dinamika eraginkorra** garatzea.

4.4. Parte-hartzearen emaitzak eta ondorioak

Parte-hartzearen emaitzak edo ondorioak oinarrizko bi mailatan uler daitezke: erabakiak hartzean duen eragina eta parte hartzea sustatzen duen kulturaren duen eragina.

Eragina politikan

Jendeak galdera hau egiten dio bere buruari: parte hartu, zertarako? Ziurrenik ere, jendeak parte hartze duen oinarrizko arrazoietakoa bat da uste duela parte-hartzea garrantzitsua dela bere bizitzarako edo eragiten dion gai batekin lotutako erabakietan eragin ahal izango duela.

Zergatik?

- Zergatik da garrantzitsua parte-hartzeak politikan eragina izatea? Bestela, jendeak izan dezake parte-hartzea denbora galtzea delako sentsazioa. Prozesua hasi aurretik sentsazio nagusia hori baldin bada, jende asko ez da deialdira joango. Sentsazio hori prozesu parte-hartzailean zehar edo ondoren sortu bada, frustrazio handia sorraraz dezakegu, eta hori martxan dagoen parte hartze prozesuaren kalterako izatez gain, etorkizunean sortu nahi ditugun parte hartze beste gune guztien kalterako ere izango da.

Zein oztopo aurreikus dezakegu?

- Gure legediaren arabera, parte-hartzearen emaitzak juridikoki ez dira lotesleak, eta, ondorioz, ez du onartzen haiek gauzatzea.
- Parte hartze foroek erabaki politikoak hartze gaitasuna badute, zein funtzio dute erakunde ordezkatzailerik? Baztertzailerik ez izan arren, ez da erraza konbinatzea erakunde ordezkatzailerik logika eta prozesu parte-hartzaileen logika.
- Parte hartze prozesuetan hartzen diren hainbat erabaki oso generikoak dira, ingurunean eta epe luzera garatu beharreko estrategiei eta lehentasun eta helburu orokorrei egiten die erreferentzia, eta ez dira islatzen automatikoki erabaki espezifikotatik.
- Baliteke talde batzuek parte hartze prozesuko erabakiak ez onartzea, prozesua manipulatu

zegoela, eztabaidan iritzi batzuk nagusitu zirela edo parte-hartzaileak adierazgarriak ez zirela uste dutelako.

Zein estrategia erabil dezakegu?

Parte hartzeko prozesuko emaitzei indar politikoa eman nahi badiegu, kontuan izan behar ditugu lehen aipatutako irizpide batzuk: prozesua akordio politiko, sozial eta tekniko zabalean oinarritzea, parte-hartze zabala, plurala eta adierazgarria izatea eta eztabaidako kondizioek askatasunez eta modu orekatuan iritzi desberdinak adierazten lagun dezatela.

Horrez gain:

- Hasieratik komeni da **zehaztea** zein diren **prozesuaren helburuak**, zein erabaki-mota hartuko diren eta zein ondorio izango dituzten.
- Eztabaidan zehar eta eztabaidaren ondoren **argi uztea** zein diren erabakiak gauzatu ahal izateko **mugak eta aukerak** (antolakuntzakoak, finantzarioak, juridikoak, denborazkoak).
- **Erakunde** ordezkatzailen **gaitasunari eustea**, parte hartzeko prozesuan hartutako erabakiak **berretzeko**.
- Beharrezkoa izanez gero, **parte hartzeko gune berriak** sortzea, azaldutako proposamenak gauzatzeko.
- Prozesuan egindako proposamenen **berri ematea** herritarrei eta haren gainean **kontzientziatzea**.

Parte hartzeko kultura sortzea

Parte-hartzeak ez du erabakietan soilik eragin behar. Beste hainbat ondorio lortzea ere espero behar dugu.

Zergatik?

- Parte-hartzea jendearen aldetik motibazio handiagoa lortzeko modu bat izan daiteke bizitza

publikoan parte hartzeko, hobeto informatutako gizartea eratzeko, teknikariak eta politikoak parte hartzeko prestatzeko, erakundeen eta herritarren artean konfiantza- eta lankidetzadynamika berriak sortzeko, gai jakinen gainean guztiok sensibilizatzeko (iraunkortasuna, generoen arteko oreka, kulturen arteko bizikidetz...), gizarte-ko hesioa handitzeko edo jendeak bere lurraldearekiko duen nortasuna sendotzeko.

Zein oztopo aurreikus dezakegu?

- Gizarteko talde eta pertsonarik aktiboek soilik parte hartzen badute, ezin izango ditugu parte-hartzearen hezkuntza-ondorioak zabaldu.
- Parte-hartzeak izaera oso zehatza badu ere, ezin izango ditugu hezkuntza-ondorioak zabaldu.
- Kondizio jakinetan, parte hartzeko prozesuek ondorio kaltegarriak izan ditzakete: eragileen artean gatazka eta mesfidantza gehitzea, parte hartzeko gune berrietan inplikatzeko gogoia kentzea jendeari, teknikarien eta politikarien eszeptizismoa areagotzea herritarren parte-hartzeari dagokionez.

Zein estrategia erabil dezakegu?

- Parte-hartzean izaera askotako **eragile eta kolektiboak**, modu desberdinean izan arren, inplikatzeko lortzea, hezkuntza-ondorioak haiei guztiak zabaltzeko.
- Denborari dagokionez, **parte hartzeko prozesu egonkorak** sortzea (horrek ez du ezinbestean esan nahi gai guztietan etengabe parte hartu behar dugunik, nekea sor baitezake).
- Parte hartzeko kondizioak zaintzea, **inor ez dadin baztertuta sentitu**, eztabaidak produktiboak izan daitezen eta emaitzak akordio zabalaren isla izan daitezen eta erabakiak hartzean eragin argia izan dezaten.



5. Parte hartzeko mekanismoak eta tresnak

Parte hartzeko mekanismoez hitz egiten dugunean, kontuan hartu beharreko **aukera ugaria eta zabala** da. Gure hautaketa aukera zabal horretan zehar gidatzeko asmoz, dokumentuaren atal honetan parte hartzeko udal-prozesuetan erabil daitezkeen metodologia nagusi batzuk aztertuko ditugu.

5.1. Parte hartzeko tresnen tipologia

Lehendik dauden eta Tokiko Agenda 21en erabil daitezkeen parte hartzeko mekanismo-moten ikuspegi orokorra emateko asmoz, (2. taulan) mekanismo nagusien sailkapena erakusten da hiru irizpide hauek kontuan hartuz:

NORK parte hartzen du?

Hau da, parte-hartzea *borondatezkoa* (nahi duen pertsona orok parte har dezake) edo *ordezkapeneko* (kolektibo zabalagoa ordezkatzeko duten taldeek edo gizabanakoek parte hartzen dute) den. Ordezkapeneko parte-hartzea, aldi berean, *asoziatiboa* (herriko elkarte eta beste talde batzuek parte hartzen dute) edo *personala* (parte-hartzaileak beren izenean parte hartzen duten herritarrak dira) izan daiteke.

NOIZ parte hartzen da?

Parte-hartzea *aldi baterakoa* (parte-hartzea erabaki-prozesuaren une jakin batean egiten da) edo *etengabea* (parte-hartzea prozesu osoan egiten da, bai arazoa eztabaidatzen hastean, bai irtenbideak zehaztean) izan daiteke.

ZEIN gai eztabaidatzeko izango da parte-hartzea?

Hainbat gairi buruz eztabaida daiteke. Parte hartzeko prozesuak, adibidez, Tokiko Agenda 21en prozesua sustatzeko aplikatu ditzakegu: **arazo bat ezagutzen edo identifikatzen** saiatzeko (diagnostikoa), **erabaki bat hartu** behar dugunean (ekintza-plana) eta, azkenik, hartutako **erabakiak gauzatu** eta gauzatzearren **segimendua egin** behar dugunean (ekintza-planaren gauzatzea).

	BORONDATEZKO PARTE-HARTZEA		ORDEZKAPENEN PARTE-HARTZEA			
	Aldi baterakoa/ sintesikoa	Etengabea/ prozesukoa	ASOZIATIBOIA		AUSAZKOA - PERTSONALA	
			Etengabea/ prozesukoa	Aldi baterakoa/ sintesikoa	Aldi baterakoa/ sintesikoa	Etengabea/ prozesukoa
Tokiko Agenda 21en prozesua sustatzea	Agenda 21en jardunaldi irekiak Dibulgazio-kanpainak Informazio-telefonoak, web orriak		Batzorde sustatzaileak	Dibulgazio-kanpaina espezifikoak Elkarrizketak		
Arazo bat ezagutzea: Udalerriko ingurumen-diagnostikoa	Gaikako foroak edo mahai-inguruak	Informazio-telefonoak, iradokizun-postontziak, web orriak	Ingurumenaren eta iraunkortasunaren udal-kontseiluak Iraunkortasunari buruzko foro iraunkorra	EASW tailerrak Lan-batzordeak Elkarrizketak	Iritzi-inkestak Elkarrizketak EASW tailerrak Eztabaida-taldeak	Kontseilu berriztatzaileak
Erabaki bat hartzea: Ekintza-plana egitea	Gaikako foroak edo mahai-inguruak	Hiritarren partaidetzarako ingurumen-aurrekontuak Informazio-telefonoak, iradokizun-postontziak, web orriak	Iraunkortasunari buruzko foro iraunkorra Ingurumenaren eta iraunkortasunaren udal-kontseiluak	Lan-batzordeak/ -taldeak	Herritarrez osatutako epaimahaia	Kontseilu berriztatzaileak
Erabaki bat gauzatzea: Ekintza-plana ezartzea	Gauzatzea Herritarrentzako kanpaina aktiboak eta borondatezkoak	Herritarrentzako kanpaina aktiboak eta borondatezkoak		Programa eta ekipamenduen kudeaketa asoziatiboa		
	Segimendua Gaikako foroak edo mahai-inguruak	Informazio-telefonoak, iradokizun-postontziak, web orriak	Ingurumenaren eta iraunkortasunaren udal-kontseiluak Batzorde sustatzaileak Iraunkortasunari buruzko foro iraunkorra	Hausnarketa-jardunaldiak Elkarrizketak	Iritzi-inkestak	Kontseilu berriztatzaileak

2. taula. Tokiko Agenda 21en parte hartzeko mekanismoen sailkapena.

ITURRIA: Guk egina.

5.2. Parte hartzeko tresna nagusien karakterizazioa eta ebaluazio orokorra

2. taulan agertzen diren parte hartzeko mekanismoen artean ezberdintasun esanguratsuak daude. Mekanismo horiek definitzen dituzten ezaugarri nagusiak hobeto ezagutzeko, tresna horiek xehetasun handigoaz deskribatuko ditugu atal honetan.

Zehazki, funtsezko 6 mekanismotan jarriko dugu arreta, Tokiko Agenda 21en barruan sarritan erabiltzen direlako edo izaera berriztatzailea dutelako: gaikako foroak edo mahai-inguruak, iraunkortasunari buruzko foro iraunkorra, ingurumenaren eta iraunkortasunaren udal-kontseiluak, EASW tailerrak, herritarrez osatutako epaimahaia eta herritarren partaidetzarako ingurumen-aurrekontuak. Sei tresna horiek sakontasunez aztertzeke, bi alderdi nagusi izango ditugu kontuan. Batetik, tresnen formatua eta funtzionamendua (zer diren, nola funtzionatzen duten) azalduko ditugu, eta, bestetik, eskaintzen dituzten abantailak eta arazoak (indar eta ahulezia nagusiak). Azalpena osatzeko, dagoeneko burutu den esperientzia baten adibidea emango dugu.

Gaikako Foroak edo Mahai-inguruak

Zer dira? Nola funtzionatzen dute?

Normalean, puntualak izaten dira (parte-hartzaileak lan-saio bakarrean edo gutxi batzuetan biltzen dira). Deialdi irekia egiten da nahi duen orok parte har dezan. Saio horietan, normalean, udal-gobernuko ordezkariak edo kanpoko adituek azterketa jakin baten emaitzak (adibidez, udalerriko ingurumen-diagnostikoa) edo etorkizuneko ekintza-proposamenak (adibidez, ekintza-planeari buruzko direnak) azaltzen dizkiete bertaraten direnei. Behin azalpena eginda, jendeak galderak egin, iritzia eman edo proposamen zehatzak egin ditzake, normalean, zuzenketa edo ekarpen osagarri gisa.

Indarrak eta ahuleziak

- ▲ Jende askok parte hartzea lor daiteke eta bertaraten direnei informazio ugari ematen zaie.
- ▼ Azalpenak askotan oso teknikoak izaten dira, eta erabiltzen den hizkuntza ulertzeko zaila izan daiteke herritar gehienentzat. Parte-hartzaileak

denbora gutxi izaten dute jasotako informazioa 'barneratzeko' eta hari buruz hitz egiteko.

- **Adibidea:** Donostiako Foroa.

Iraunkortasunari Buruzko Foro Iraunkorra

Zer dira?

Iraunkortasunari buruzko foro iraunkorra Tokiko Agenda 21en prozesuan eraturako tresna izan ohi da. tresna honen asmoa da diagnostikoari eta ekintza-planari buruzko eztabaidan eta Tokiko Agenda 21en ezarpenaren segimenduan eta sustapenean parte hartzea. Prozesuan parte hartzen duten eragile guztien organo ordezkari nagusia izan ohi da eta erabaki nagusiak han hartu edo berresten dira.

Nola funtzionatzen dute?

Kasu batzuetan, foro iraunkorra ingurumenaren eta iraunkortasunaren kontseilu batetik (ikus aurrerago) abiatzen da, eta, normalean, ingurumen-politiketan parte hartzen ez duten eragile berriak gehituz, kontseiluko ordezkari-tza zabaldu nahi izaten du. Beste kasu batzuetan, foroa berria izaten da. Foroa osatzeko, hasierako bilera baten deialdia egiten da, eta Tokiko Agenda 21en prozesuan lortu beharreko helburuak eta segitu beharreko estrategiak finkatzen dira. Ondoren, saio gehiago antolatzen dira maiztasun jakin batekin, eta Tokiko Agenda 21 egiteko eta ezartzeko faseei buruz eztabaidatzen da. Foro iraunkorra, Tokiko Agenda 21 dokumentua onartzeko soilik erabiltzeaz gain, Agenda ezartzeko erakunde sustatzaile nagusi bihurtu daitezke. Funtzionamendu-araudia eduki dezakete edo ez.

Indarrak eta ahuleziak

- ▲ Ordezkaritza politiko, tekniko eta sozial handiko organoa da, foroan lortzen den parte-hartzea zabaldu eta plurala izaten baita. Parte hartzeko prozesuari jarraipena eta koherentzia ematen dion egitura egonkor bat da.
- ▼ Parte-hartzea zabaldu eta plurala izanda eta tarte handiko maiztasunarekin bilduta, zaila da arazoak sakon aztertzea eta erabaki oso zehatzak hartzea. Beste gune eraginkorrago batzuetan eztabaidatutako eta adostutako erabakiak berresten dira normalean.
- **Adibidea:** Amurrioko eta Azkoitiko iraunkortasun-foroa.

Ingurumenaren eta Iraunkortasunaren Udakontseiluak

Zer dira?

Kontseiluak kontsultarako organo iraunkorrak dira, eta gaiaren (ingurumena), lurraldearen (auzoa, distritua...)

edo biztanleria-sektorearen arabera (gazteak, emakumeak, etorkinak...) antolatuta egoten dira.

Nola funtzionatzen dute?

Kontseiluak maiztasun jakin batekin biltzen dira (hama-bostean behin, hilero, sei hilabetetik behin) eta, normalean, hainbat organotan antolatzen dira: antolamendualderdiez arduratzen den *idazkaritza tekniko*; gidaritza politikoaren funtzioa duen *kontseilu iraunkorra*; azpizgai espezifikoari buruzko *lan-batzordeak*; eta *batzarra* (edo osoko bilera), organo subiranoa. Osaera mistoa izan ohi du: ordezkari sozialak, teknikoak eta politikoak izan ohi ditu. Kontseiluan erakunde guztiak ordezkari daitezke, erakunde sustatzaileak aukeratuta, sare asoziatiboak demokratikoki aukeratuta edo beste irizpide batzuen arabera hautatuta.

Erakundeko ordezkariak udal-jardueren berri ematen die parte-hartzaileei, eta iritzia eta proposamenak jasotzen dituzte. Kasu gehienetan, kontseiluaren funtzioa kontsulta egitea izaten da.

① Aldaera bat: Kontseilu berriztatzaileak

Kontseilu hauetan, ordezkari tekniko, politiko eta asoziatiboaz gain, herritarrek ere parte hartzen dute giza-banako gisa eta ausaz hautatuta.

Indarrak eta ahuleziak

- ▲ Udalaren eta erakundearen artean harremana has-teko edo sendotzeko aukera eskaintzen du. Parte-hartzaileek informazio asko izaten dute. Izaera iraunkorra beste indargune bat da.
- ▼ Kasu askotan, politiketan duen eragina mugatua izaten da, zeren eta kontseiluak erakundeei entzuteko gune gisa diseinaturik baitaude, eta ez haiek politiketan modu erabakigarrian eragin dezaten. Arazoak, normalean, parte-hartzaileak ordezkari izatearekin eta saioen dinamika erakar-garri eta funtzional faltarekin lotuta egoten dira.
- **Adibidea:** Gasteizko eta Bilboko ingurumenaren udal-kontseiluak.



EASW tailerrak

Zer dira?

Kontsultarako mekanismo bat da, eta une zehatzetan baina gai askotarako erabil daiteke. Tailer bakoitzerako bost kolektibotako 20-30 pertsona aukeratzen dira: ekonomia- eta lan-mundua, elkarteak, udal-teknikariak, politikariak eta herritarrak. Parte-hartzaileak, normalean, egun eta erdian biltzen dira gai jakin baten etorkizuna nola ikusten duten hitz egiteko eta proposamenak egiteko.

Nola funtzionatzen dute?

Aurrena, parte hartzen duten kolektiboak bakarka biltzen dira, aztertzen ari diren lurralde edo eremurako etorkizuneko agertoki onena eta okerrena imajinatzeko. Ondoren, kolektibo guztiek batera talde bakoitzak proposatutako ikuspegiari buruz hitz egiten dute. Diagnostikoaren lehen fasea amaitutakoan, parte-hartzaileak berriro talde txikitan biltzen dira, baina oraingoan ez kolektiboaren arabera, nahaita baizik, guztien artean identifikatu diren arazoak konpontzen lagun dezaketen proposamenak pentsatzeko eta formulatzeko. Saioaren amaieran, denak elkartzen dira, eta ustez lehentasuna duten proposamenekin zerrenda bat egiten dute.

Indarrak eta ahuleziak

- ▲ *Eztabaida aberatsa*: pertsona-talde oso desberdinak udalerrinari buruz hitz egiteko biltzen dira.
- ▼ Aurrez ez zaie eztabaidako gaiari buruzko informaziorik ematen parte-hartzaileei, eta hitz egiteko duten denbora oso mugatua da. Bestetik, parte-hartzaileak hautatzeko prozesuarekin lotutako ordezkari-taldea arazoak agertzen dira.
- **Adibidea**: Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako Hondakinen Plana.

Herritarrez Osatutako Epaimahaiak

Zer dira?

Epaimahaiak herritar-kopuru mugatu batez osatutako taldeez eratuta daude. Egundak biltzen dira interes publikoko gai bati buruz hitz egiteko, eta gai horren

inguruan beren ustez zer egin beharko litzatekeen azaltzen dute txosten batean (herritarren txostena). *Iritziak biltzeko nukleoak* edo *herritarren kontseiluak* izenarekin ere ezagutzen dira.

Nola funtzionatzen dute?

Udal-errolatik 75 bat pertsona ausaz hautatzen dira, eta beste zerrenda bat egiten da ordezkoei badaezpada ere, lehenengoek parte hartzeko gonbita onartuko ez balute ere. 75 pertsona horiek bi edo hiru epaimahaietan banatzen dira lan-agenda berdinarekin. Parte hartzeko prozesu horrek bi edo hiru egun irauten du, denbora osoko arduraldian, eta parte-hartzaileek, normalean, diru-saria jasotzen dute prozesuari eskainitako erabateko arduraldiagatik. Denbora horretan, parte-hartzaileek eztabaidatu behar den gaiari buruzko informazioa jasotzen dute aditu, elkarte eta alderdi politikoengandik. Gero, gai horri buruz hitz egiteko denbora izaten dute, bai denek batera, bai talde txikiagotan. Egundak horiek igitutakoan, parte-hartzaileek galdera-sorta bati erantzun behar izaten diote. Ondoren, antolatzaileek txosten bat idazten dute eztabaidako ondorioekin. Epaimahaikideetatik hautatutako parte-hartzaile batzuek osatutako batzorde batek aztertu eta berresten du txosten hori.

① Eztabaidako gaiak zehatzagoak (adibidez, plaza publiko berri baten diseinua) edo zabalagoak izan daitezke (adibidez, hiri-antolakuntzarako plan orokorra edo etorkinen harrerari buruzko politikak egitean kontuan hartu beharreko irizpideak).

Indarrak eta ahuleziak

- ▲ Parte-hartzaileek informazio ugari jasotzen dute, eta gai berari buruzko hainbat iritzi ezagutzen dituzte. Ordezkaritza soziodemografikoa oso altua izan ohi da, parte-hartzaileak ausaz hautatzen direlako.
- ▼ Antolamendu-kostuak handi samarrak izaten dira. Erakundeek ez dute hain erraz onartzen 'berri-emaille' funtzioa soilik izatea. Parte-hartzaileei emandako informazioan egon daitezkeen joerkin lotutako arriskuak agertzen dira.
- **Adibidea**: Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuak 1994an Gipuzkoako autobaien diseinuari buruz eztabaidatzeko sustatutako IBITak.



Herritarren Partaidetzarako Ingurumen-aurrekontuak

Zer dira?

Tresna honen bidez, herritarrek udalaren ingurumen-aurrekontuari buruzko eztabaidan eta hura lantzeko prozesuan parte har dezakete urtero, alegia, udalak erabakitzen du zenbat baliabide esleituko diren ingurumena zaintzeko eta hobetzeko eta zertarako erabiliko diren, beti ere, herritarren iritzia kontuan hartuz.

Nola funtzionatzen dute?

Urtero, apirila eta ekaina bitartean, hainbat tailer antolatu dira udalerriko auzoetan, eta udalak aurrekontuan sartuta dauden baliabideen berri ematen die parte hartzen duten herritarrei. Tailer horietan, eztabaida egiten da ingurumenari dagokionez zein diren udalerraren beharrak jakiteko, eta zerrenda bat egiten da dirua zein ekintza nagusitan inbertitu beharko litzatekeen adieraziz. Aurrerago, iraila eta urria bitartean, egindako pro-

posamenak zehaztasun handiagoaz aztertzen dira eta bozketa egiten da garrantzitsuenak aukeratzeko. Amaitzeko, gobernu-taldeak aurrekontuaren proposamenari buruz eztabaidatzen du eta udal-batzan onartzen da.

Indarrak eta ahuleziak

- ▲ Eztabaida politika ororen funtsezko alderdi batean oinarritzen da: aurrekontuak egitea. 'Prozesu' baten izaera duenez, etengabe parte hartzeko aukera ematen du, parte-hartzea sustatzen duen kultura sortzeko gaitasun handiarekin.
- ▼ Antolamendu-kostuak handiak dira; parte-hartzaileen dedikazio handia eskatzen du konplexutasun tekniko handiko gaiei buruz hitz egiteko.
- **Adibidea:** Rubi, Kordoba, Cabezas de San Juan, Puente Jenil edo Albaceteko herritarren partaidetzarako aurrekontuak. Dena den, esperientzia orokorragoak dira, ez dituzte ingurumen-arazoak bakarrik tratatzen.

	Gaikako foroak edo mahai-inguruak	Iraunkortasunari buruzko foro iraunkorra	Udal-kontseiluak	EASW tailerrak	Herritarrez osatutako epaimahaiak	Herritarren partaidetzarako ingurumen-aurrekontuak
Zer? Landutako gaiak	Hainbat	Tokiko Agenda 21en antolamendu-alderdiak eta edukiari buruzkoak	Sektorialak edo lurraldekoak	Hainbat, hirigintzakoak batik bat	Hainbat	Aurrekontuko diru-hornidura ingurumeneko ekintzetarako
Nor? Parte-hartzaile mota	Erakundeak eta herritarrak	Erakundeak eta herritarrak	Erakundeak	Erakundeak eta herritarrak	Herritarrak	Erakundeak eta herritarrak
Noiz? Prozesuaren iraupena	Puntuala, 2-3 ordu	Aldizkako bilerak	Etengabea, aldizkako bilerak	Puntuala, 1-2 egun	Puntuala, 2-3 egun	Etengabea, aldizkako bilerak 3 hilabetetan gutxi gorabehera
Nola? Informazio-eta eztabaida-maila	Nagusiki informazioa Altua	Informazioa eta eztabaida Altua	Informazioa eta eztabaida Ertaina	Eztabaida soilik Altua	Informazioa eta eztabaida Altua	Informazioa eta eztabaida Altua
Azken proposamen-motak	Normalean, proposamenen zuzenketak eta iruzkinak	Erabakiak zuzendu edo berresten dira	Kontseiluari buruzko proposamen edo gomendio oso desberdinak	Lehenetsitako proposamen-multzoa xehetasun gutxiarekin	Proposamen bat zehaztasun batzuekin	Lehenetsitako proposamen-multzoa
Ahulezia nagusiak	Azalpen teknikoak, ulertzen zailak Eztabaidarako denbora gutxi	Sakontzeko eta zehazteko gaitasun gutxi	Erakunde-kopuru mugatu baten iritzia entzuten da Eragin gutxi politiketan	Informazio-maila desberdinak parte-hartzaileen artean Eztabaidarako denbora gutxi	Taldeentzako leku gutxi Kostu handia eta antolamendu-zailtasunak	Antolamendu-kostu handiak Eztabaidatu beharreko gaien konplexutasun teknikoa
Indar nagusiak	Herritar guztientzat irekia: parte-hartze maila altua lor daiteke Parte-hartzaileek informazio asko jasotzen dute	Ordezkaritza-maila altua eta jarraipena Parte-hartzaileek informazio asko jasotzen dute	Izaera iraunkorra Udalaren eta erakundeen arteko harremana indartzen dute	Parte-hartzaile desberdinak Prozedura erraza eta malgua	Parte-hartzaile nahiko adierazgarriak Informazio eta deliberazio-maila altua	Deliberatorako informazio eta denbora asko Parte hartzeko kultura sortzeko gaitasun handia

3. taula. Tokiko Agenda 21en parte hartzeko tresnen ebaluazio nagusia.

Tokiko Agenda 21eko prozesuetan erabil daitezkeen gainerako tresnen azalpenarekin jarraitu aurretik eta laburpen gisa, deskribatu ditugun sei tresna horien karakterizazio eta balorazio orokorra egiten da 3. taulan.

Parte hartzeko proposatutako mekanismoen aukera osatzeko, 3. taulan agertzen diren gainerako tresnak laburki azaltzen dira.

Batzorde Sustatzailea eta Batzordea 21

Zer dira?

Ingurumenari eta iraunkortasunari dagokionez oso aktiboak diren kideez osatutako batzordeak dira, eta Tokiko Agenda 21en prozesua sustatzeko antolatzen dira. Batzorde horietan udalerriko sektore sozial, ekonomiko eta politiko-administratiboko ordezkari gehienak daudela bermatzen saiatzen dira. Kasu batzuetan, baina ez beti, Foro Iraunkorrari lotutako organo gisa eratzen dira, eta partaidetza mugatuagoa dute eta bilerak sarriago egiten dira. Bilera horietan, gero foroan eztabaidatuko, zuzenduko eta berretsiko diren erabakiak hartzen dira.

Indarrak eta ahuleziak

- ▲ Eraginkortasuna eta dinamismoa, parte-hartzearen izaera mugatuagatik eta parte-hartzaileen profilarengatik.
- ▼ Mobilizazio murriztua eta herritarrenganako proiektio eskasa izateko arriskua.

Iritzi-inkestak

Zer dira?

Herritarrek ingurumenari eta iraunkortasunari buruz zer iritzi, balio eta portaerazko jarraibide dituzten jakiteko egiten diren galdera-sortak dira. Biztanleriaren lagin adierazgarri bati banatzen zaizkio galdera-sortak, eta lortutako erantzunak metodo estatistikoen bidez aztertzen dira eta ondorio orokorrak ateratzen.

Indarrak eta ahuleziak

- ▲ Herritar-kopuru handi baten iritzia biltzeko eta aztertze aukera ematen dute. Emaitzak biztanleria osoaren adierazgarri zehatz samarrak dira eta pertzepzioaren informazio kuantitatiboa ematen dute.
- ▼ Parte-hartzaileei ez zaie informaziorik ematen, ez eta elkarrizketarako aukerarik ere, galdera-sortak banaka eta modu anonimoan erantzuten baitira. Horrez gain, ez dute herritarren pertzepzioari buruzko informazio kualitatiborik ematen.

Elkarrizketak

Zer dira?

Arlo sozial, politiko edo ekonomikoko eragileei egindako elkarrizketa pertsonalak dira, udalerriri eragiten dioten gai jakinei buruz duten iritzia ezagutzeko eta beren proposamenak biltzeko. Elkarrizketak udaleko ordezkari teknikoek eta politikoez edo kanpoko adituek egin ditzakete.

Fortalezak y debilidades

- ▲ Funtsezko eragileen iritzia zehaztasunez ezagutzeko aukera ematen dute.
- ▼ Ez dute iritziak trukatzeko aukerarik ematen.

Dibulgazio-kanpainak

Zer dira?

Helburua gertaera edo programa bat ezagutaraztea da (gure kasuan, Tokiko Agenda 21), baliabide publizitarioak erabiliz. Informazioa herritarrentzat, oro har, (kasu horretan, adibidez, kartelak, informazio-triptikoak, megafonia mugikorra edo komunikabideetako iragarki laburrak erabil daitezke) edo herriko elkarte eta taldeentzat izan daiteke (sektore sozial eta ekonomikoei zuzendutako aurkezpen-gutunen eta informazio-saioen bidez).

① Tokiko Agenda 21en kasuan, **jardunaldi irekiak** antola daitezke prozesuaren berri emateko. Kasu horretan, udalak egun oso bat hartzen du informazioa banatu eta ekintzak antolatzeko, udalerriko Tokiko Agenda 21 zer den azaltzeko herritarrei eta bertan parte hartzera gonbidatzeko.

① **Informazio-telefonoak** eta **web orriak** dibulgaziorako mekanismo iraunkortzat har daitezke, Tokiko Agenda 21en prozesu osoan zehar herritarrentzako informazio-kanal gisa funtzionatzen baitute.

Indarrak eta ahuleziak

- ▲ Herritarrek informatzeko eta sensibilizatzeko aukera ematen dute, mezua hartzaile desberdinetara egokitu baitaiteke eta prozesuari proiektzioa emateko aukera ematen baitute.
- ▼ Kontsultak egin, proposamenak bildu eta/edo erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzeko aukera ematen duten tresnekin osatu behar den funtzio berri-emalea bakarrik dute.

Herritarrentzako Kanpaina Aktiboak eta Borondatezkoak

Zer dira?

Herritar guztiei zuzendutako parte hartzeko deialdiak dira eta ahalik eta pertsona gehien biltzea dute helburu, ingurumenarekin eta iraunkortasunarekin lotutako ekintza zehatzak egiteko (zuhaitzak landatzea gune jakin batean, hondartzak garbitzea, gizartetik baztertuak izateko arriskua duten sektoreei laguntzea). Herritarrei udalerriko ingurumena eta iraunkortasuna hobetzeko egin daitezkeen ekintzen berri emateko helburua ere izan dezakete (informazio-kanpainak hondakinen gaikako bilketari buruz, ura eta elektrizitatea aurrezteko neurriei buruz).

Normalean, udal-gobernuak antolatzen ditu kanpaina horiek eta herriko komunikabideak (prentsa, irratia) erabiltzen ditu herritarrei horien berri emateko eta parte hartzera gonbidatzeko. Eskola edo herriko elkarteekin ere harremanetan jarri eta haiekin lan egin dezake kanpaina horiek egiteko.

Indarrak eta ahuleziak

- ▲ Kausa jakin baten alde ezeren truke laguntzen duen herritar pila mobiliza dezakete.
- ▼ Parte-hartzaileei informazioa ematen die, baina parte-hartzea, normalean, ekintza zehatz batera mugatzen da eta ez du jarraipenik izaten denboran.

Programa eta Ekipamenduen Kudeaketa Asoziatiboa

Zer dira?

Mekanismo honen bidez, udala herriko elkarte edo erakunde batekin akordio batera iristen da, talde horrek ardura har dezan ingurumenarekin lotutako programa bat bideratzeko (elkarte ekologista batekin, ingurumen-ehkuntzako jarduerak egiteko natur gune batean; edo kirol-elkarte batekin, bizikletaren erabilera sustatzea helburu duen jaialdi bat antolatzeko). Gune edo ekipamendu bat kudeatzea ere izan dezake helburua (parke bat, berdegune bat).

Fortalezas y debilidades

- ▲ Ingurumena eta iraunkortasuna hobetzeko eta zaintzeko udal-politiken erantzukizuna partekatzen da, eta udal-gobernuaren eta elkarteen arteko harremanak zabaltzen dira.
- ▼ Erakundeek kontrolatzeko gaitasun pixka bat galitzen dute programa edo ekipamendu horren kudeaketan, ordezkariitza mugatua eduki dezakeen erakunde bat bultzatzeko. Sare asoziatiboa burokratizatze eta gobernuen helburuen mende jartzeko arriskua ere badago.

Eztabaida-taldeak

Zer dira?

Ordubete edo bi orduko iraupena duten bilerak dira, eta, neurri handiagoan edo txikiagoan, gai espezifiko bati buruz informazio garrantzitsua eman dezaketen pertsonak gonbidatzen dira. Talde homogeneoak (oso antzeko ezaugarriak dituzten pertsonak) edo talde heterogeneoak antola daitezke. Pertsona horiek antolatzaileak egindako galdera batzuen gainean eztabaidatzen dute. Eztabaida, oso irekia izan ohi da, eta baliagarriena da eztabaidan berez ateratzen diren ideiak sintetikoki biltzea, eta, hala, eztabaida ez da mugatzen galdera gehiegi eta oso espezifikoak bakarrik egitera.

Indarrak eta ahuleziak

- ▲ Eztabaida espontaneoak ideia ugari sortzeko aukera ematen du.
- ▼ Eztabaida irekiak desorekak sor ditzake parte-hartzaileen artean, eta hori kontrolatu egin behar izaten da.

5.3. Eztabaidak dinamizatzeko teknikak

Aipatu ditugun tresna horiek, kasu batzuetan, dinamizazio-teknika espezifikoekin lotuta egoten dira (EASW tailerrak edo herritarrez osatutako epaimahaiak); beste batzuetan, berriz, aplikatutako teknikak oso desberdinak izan daitezke, eta horrek tresnak arrakasta izatea edo ez eragiten du neurri handi batean.

Kapitulu metodologiko hau amaitzeko, parte hartzeko jarduerak antolatzeko eta dinamizatzeko teknika orokor batzuk azaltzea komeni da. Teknika horiek eztabaidan oinarritutako parte hartzeko tresnetan aplikatu daitezke neurri handiagoan edo txikiagoan, kasuaren arabera.





Parte hartzeko irizpideei buruzko kapituluan aipatu dugu eztabaida orekatuak, pluralak, erakargarriak eta funtzionalak antolatu behar direla. Helburu horiek lortzeko, aurreikus ditzakegun oztopo batzuk eta horiek gainditzeko estrategia batzuk ere azpimarratu ditugu. Orain, bide horretan lagun diezaguketen teknika batzuk ikusiko ditugu sintetikoki.

Bileretan aurkezpena egiteko teknikak

Garrantzitsua da bilerako **parte-hartzaileak** beren artean **ezagutzea**, eta hori ez da beti ziurtatzen. Hori dela eta, bilerak hasi aurretik giroa lasaitzeko, aurkezpenak egin ten dira hainbat teknika erabiliz. Adibidea:

- Parte-hartzaile gehiegi ez dagoenean, guztiak dute beren burua aurkezteko minutu pare bat: izena, zein erakundetakoak diren eta beste datu batzuk eman ditzakete (egoitza non dagoen, Agenda 21en prozesuaren edo bileraren bidez zer lortzea espero duten, etab.).
- Parte-hartzaile gehiegi dagoelako lehenengo teknika hori aplikatu ezin bada, parte-hartzaileek aurkezpen-txartelak erabil ditzakete.
- Aurkezpenak talde txikietan ere egin daitezke.

Eztabaidak talde txikitan

Sarritan, parte-hartzaile asko ez dira eztabaida irekietan sartzen lotsagatik edo beren buruarekiko konfiantza

faltagatik edo beren jarrerak onartuko ez diren beldurragatik. Horregatik, askotan erabili ohi den teknika da parte-hartzaileak talde txikitan banatzea. Hala, **eztabaida irekiagoa** eta **dinamikoagoa** izango da seguru asko, eta ia parte-hartzaile guztiak aldi berean parte hartzea lortuko da. Ondoren, talde horietako bozeramaileak eztabaidan sortu diren ideiak aurkeztuko dizkie gainerakoei. Gauza bera egin daiteke bikoteka.

Txartelak erabiltzea

Parte-hartzaile guztiak beren iritzia emateko beste teknika bat txartelak erabiltzea da. Parte-hartzaile bakoitzak, bakarka, bikoteka edo talde txikitan, txartel horien testuinguruan moderatzaileak egindako galderari erantzun behar die. Adibidez, proposamen bat egiteko eskatzen bada, txartela gai hauetan egitura daiteke: proposamenaren izenburua / zein arazo konpondu nahi den / zein den arazoa / zein eragilek konpondu beharko luketen. Ondoren, proposamenak jaso eta moderatzaileak edo egileek berek gainerakoei azaltzen dizkiete eta taula batean jartzen dira.

Teknika horren bidez, parte-hartzaileek ekarpenak egin ditzakete, baina leku mugatu batean **sintetizatu** behar dituzte. Halaber, txartelak publikoki erakutsita, lortzen diren emaitzak **etengabe ikus daitezke**; hala, ez dira errepikatzen aurrez aipatutako gaiak eta hartutako erabakien **gardentasuna** bermatzen da.

Papelografoak erabiltzea

Eztabaidan sortzen diren ideiak modu ordenatuan jasotzeko eta ikusgai jartzeko modu bat papelografoak erabiltzea da, ideia horiek bertan idazteko. Hala, eztabaida ordenatu eta gai-agenda komunean oinarri daiteke. Talde-lana eta **adostasunak lortzea** ere errazten du: adibidez, parte-hartzaileek ideiak ordenatu, bildu eta adostasun- eta desadostasun-puntuak identifika ditzakete, eta hortik aurrera eztabaidari ekin diezaiokete.

AMIA analisia

AMIA analisiak (ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak) **eztabaiden edukia antolatze**ko esparrua eskaintzen du (banakako hausnarketa-prozesuan, talde txikiko lan-prozesuan edo osoko bileretan). Parte-hartzaileei eskatzen zaie eztabaidatzen ari diren gaiarekin lotutako alderdi hauek identifikatzeko:

- **Ahuleziak:** aztertukoaren alderdi negatiboak.
- **Indarrak:** aztertukoaren alderdi positiboak.
- **Mehatxuak:** aztertutakoaren gain eragin negatiboa izan dezaketen kanpoko alderdiak.
- **Aukerak:** aztertutakoaren gain eragin positiboa izan dezaketen kanpoko alderdiak.

Esparru horrek eztabaidan sortutako ideiak argi ordenatzeko aukera ematen du, diagnostiko-prozesuetan batetik bat.

Adostasunaren eta lehentasunen analisia egiteko galdera-sortak

Eztabaiden edukia ordenatzeko beste teknika bat galdera-sortak dira, eta eztabaidak bi modutan dinamizatzeko erabil daitezke:

- **Eztabaidari ekiteko eta bertan arreta jartzeko:** Galdera-sortan egiten diren galderetan azaldutako alderdiekiko zenbateko adostasuna duen adierazi behar du parte-hartzaile bakoitzak, eta horretan oinarrituz, banakako hausnarketa-lanari egin behar diote. Emaitzen hustuketa egin eta haiek landutakoan, adostasun gehiena duten eta, ondorioz, bileran aipatu behar ez diren alderdiak identifika daitezke, baita desadostasun gehiena dutenak ere, eta zehazki horietan jarri beharko dugu arreta.
- **Azken bozketak egiteko:** galdera-sorta eztabaidaren bukaeran parte-hartzaileen lehentasunak ordenatzeko mekanismo bat izan daiteke, horrek iritzien ñabardurak eta parte-hartzaile guztien lehentasunak biltzeko aukera ematen baitu.

Arazoen, zergatien eta ondorioen zuhaitzak

Adierazitako **arazoak** kausa-efektu zuhaitz gisa **identifikatzeko eta hierarkizatzeko** aukera ematen duen teknika da. Gainazal handi batean (horma, arbela, taula...) arazo bat azaltzen da. Ondoren, parte-hartzaileek hainbat ideia ematen dituzte eta arazo horrekin lotutako zergatiak eta ondorioak zein diren adierazten dituzte. Horiek, hierarkikoki antolatzen dira beherantz (arazoak) eta gorantz (ondorioak). Teknika honen bidez, arazo-multzoa argi eta garbi ordena daiteke, eta haiek konpontzeko helburuak eta beharrezko ekintzak zuzenean adierazteko aukera ematen du.



6. Parte-hartzearen diseinua, plangintza eta ebaluazioa

6.1. Plangintza-esparrua

Gida honetan, une honetan azpimarratu beharra dagoen ideia bat azaldu dugu: **ez dugu argibide zehatz eta estandarizaturik parte hartzeko prozesu bat eraginkortasunez gauzatzeko; horregatik, ez dago eredu bat, asko baizik, eta aipatu ditugun eta orain ordenatzen saiatuko garen era bateko eta besteko arazoetara egokitu behar dira horiek.**

Dena den, parte hartzeko prozesuak diseinatzen, planifikatzen eta ebaluatzen lagun diezaguketen irizpideak, estrategiak eta tresnak baditugu, eta gida honen helburua horiek identifikatzen eta ulertzen laguntzea da. Parte hartzeko prozesu baten diseinua planteatzeko orduan kontuan izan beharreko alderdi nagusiak hauek izan daitezke: galdera egokiak egitea, erantzun alternatibo posibleak identifikatzea, kontuan hartu beharreko oinarrizko irizpideak onartzea eta helburu batzuk edo besteak lortzen lagun diezaguketen tresnak eta estrategiak ezagutzea.

Imajina dezagun egoera hau: Tokiko Agenda 21en barruan, parte hartzeko prozesu bat diseinatzeko eta martxan jartzeko ardura eman digute. Hain zuzen, egoera horretan egongo dira gida hau irakurriko duten hainbat pertsona. Nondik hasi behar dugu? Zein galderari erantzun behar diegu martxan jarri aurretik? Hor oinarrizko galdera hauek identifikatu ditugu:

ZEIN dira parte hartzeko prozesuaren helburuak?

Hau da, zein diren parte-hartzearekin konpondu nahi ditugun arazoak eta zer emaitza lortu nahi dugun.

Tokiko Agenda 21en kasuan, hiru helburu nagusi identifika daitezke:

1. **Arazoa ezagutzea:** *ingurumen-diagnostikoa, diagnostiko ekonomikoa eta diagnostiko soziala.*
2. **Erabakiak hartzea:** *Tokiko Ekintza-plana.*
3. **Erabakiak aplikatzea:** Tokiko Agenda 21 ezartzea eta horren *segimendua* egitea.

Horrez gain, kontuan hartu behar dugu Tokiko Agenda 21 ezartzean interesen arteko gatazkak sor daitezkeela, eta arazo hori, agian, ezin izan dugula aurreikusi Tokiko Agenda 21 bera egitean. Orduan, *gatazkak konpontzeko* estrategietara jo behar dugu.



NON gaude?

Hau da, parte hartzeko prozesu hori zein testuinguru politiko eta sozialean funtzionarazi behar dugun. Hona hemen kontuan izan beharreko aldagai batzuk:

- **Udalerri-mota:** landatarra, hiritarra...? zein tamainakoa?
- **Parte-hartzearen aurrekariak** udalerrian: udalerriko asoziazionismoa zenbaterainokoa da eta zein motakoa? nolako harremana dute eragile sozialek elkarren artean? parte hartzeko zein mekanismo eta prozesu egin dira aurretik? nola bideratu ziren? zein emaitza lortu zen?

Lehen galdera horiek landutakoan, prozesuaren diseinua zein elementuk osatzen duten galdetu behar dugu.

NORK hartuko du parte?

Nork egon beharko luke edo nor ordezkatu beharko litzateke parte hartzeko prozesuan? Gogora dezagun kasu honetan bi dilema agertzen direla:

- *Borondatezko* parte-hartzea eta *ordezkapeneko* parte-hartzea.
- Parte-hartze *personala vs asoziatiboa*.

ZEIN TRESNA erabil dezakegu parte-hartzea bideratzeko?

Eta nola konbina ditzakegu elkarren artean? 5. kapituluaren erabilgarri dauden tresna nagusiak eta bakoitzaren berezitasunak azaldu dira.


NOIZ egingo da parte hartzeko prozesua?

Edo zehazkiago, zenbat denbora egon beharko du mar-txan? Gogora dezagun zein den, honi dagokionez, ager daitekeen oinarrizko dilema: parte hartzeko gune *eten-gabeak* (parte-hartzea prozesu osoan egiten da) edo *aldi baterakoak* (parte-hartzea une jakinetan bakarrik egiten da) sortzea.

NOLA bideratuko da parte-hartzea?

Hau da, zein izango da prozesuan parte hartuko dutenen funtzioa: informazioa bakarrik jasoko dute, gai jakinei buruz galderak egingo zaizkie, proposamenak egingo dituzte, erabakiak hartzeko prozesuan parte hartuko dute?

Azkenik, parte hartzeko prozesua planifikatzen eta ebaluatzen lagunduko diguten **oinarrizko irizpideak** hartu behar ditugu kontuan. Alderdi hauei eragiten dieten irizpideak: *parte-hartzearen esparru orokorra, mobilizazioa, eztabaidetako dinamika eta parte-hartzearen emaitzak eta ondorioak*.



5. irudia. Parte hartzeko prozesuaren diseinuan sartzen diren elementuak.

Galdera horiek guztiak modu konplexuan loturik daude elkarren artean. Horietako bakoitzak hainbat erantzun alternatibo emango dizkigu, eta guk horietatik aukeratu ahal izango dugu.

5. irudiko eskeman, parte hartzeko prozesuak diseinatzean kontuan hartu beharreko elementu guztien ikuspegi orokorra erakusten da.

6.2. Parte hartzeko prozesuaren diseinua eta planifikazioa

Lehen aipatu ditugun galdera guztiak Tokiko Agenda 21en parte hartzeko prozesuaren planifikazio- eta diseinu-prozesuan nola txertatzen diren azalduko dugu. Funtsuzko bi urrats daude: prozesuaren **aurretiko definizioa** eta **diseinua** eta **martxan jartzea**.

Aurretiko definizioa

Honen xedea hau da: **helburuak** zehaztea, **sustapenerako eta segimendurako egiturak** eratzea eta parte hartzeko prozesua garatzeko **testuinguruko elementurik** adierazgarrienak identifikatzea. Ondorioz, fase honetan garrantzitsua izango da parte-hartzearen esparru orokorreko irizpideak kontuan hartzea: akordio politikoak, sozialak eta teknikoak lortzea eta helburu argiak eta errealistak zehaztea.

Helburuak zehaztea eta akordioak lortzea

Tokiko Agenda 21en esparruan, parte hartzeko helburu egokiak zehazteko eta akordioak lortzeko, besteak beste, alderdi hauek planteatu beharko dira:

- fase guztietan parte-hartzea egotea nahi dugu (diagnostikoa, ekintza-plana, ezarpena)?
- zein gairi buruz hitz egingo dugu: Tokiko Agenda 21 'zabala' izatea nahi dugu, ingurumeneko gaiak, gai sozialak, ekonomikoak, hirigintzakoak, hezkuntzakoak eta abar barnean hartzea nahi dugu edo ingurumen-arloa soilik landu nahi dugu?
- prozesuan erakundeek zenbaterainoko kontrola izatea nahi dugu?
- zein hartu nahi dugu kontuan eta zertarako?

Galdera horiei guztiei erantzuteko, baliagarria da:

- a) hasiera batean, prozesuaren sustatzaile politikoaren galdera horiekiko borondatea zenbaterainokoa den ikustea, **bi aldean arteko bileren bidez**. Parte hartzeko prozesua zuzendu beharko luke ten oinarrizko irizpideak eta printzipioak azaldu behar zaizkio, eta prozesuaren asmo orokorrari dagokionez oinarrizko akordioak lortu.
- b) beste fase batean, eztabaida hori beste eragile tekniko, politiko eta sozial batzuei irekitzea. Eztabaida hori hainbat egituren testuinguruan egin daiteke:
 - **Gobernu-batzordea**, alkatearen, gobernuko egitura politikoaren edo prozesuan aktiboki parte

hartzea nahi dugun arloen konpromisoa lortzeko.

- **Bozeramaileen batzordea** eta **udalbatza**, indar politiko guztien edo zinegotzi gehienen konpromisoa lortzeko.
- Arlo garrantzitsuenetako **teknikariekin informazio-saioak** eta **eztabaida-saioak** egitea.
- **Ordezkarri sozialekin informazio-saioa** eta **eztabaida-saioa** egitea (erakunde eta interesatutako pertsona guztientzat irekia izan beharko luke deialdiak). Kasu batzuetan, baliteke ordezkarri sozialekin osatutako ingurumen-kontseilua jadanik egotea, baina kontuan hartu beharko litzateke eztabaida kontseiluan ordezkatuta ez dauden beste eragile batzuetara zabaltzeko aukera.

Urrats horiek guztiek jokoaren arauari buruzko adostasunak lortzen lagundu beharko lukete. Jokoaren arauak diseinatzean, eragile politiko, sozial eta teknikoek parte hartzen badute, prozesuan konplizitateak sortzen eta oinarrizko konpromisoak hartzen lagunduko luke.

Bilera horien bidez, **batzorde batzuk** osatu beharko lirateke, eta horien funtzio nagusia Tokiko Agenda 21en prozesu osoa **sustatzea** eta **haren segimendua egitea** izango litzateke. Kasu batzuetan, ordezkarri politikoak, sozialak eta teknikoak dituen egitura bakarra sortzea erabaki da (**Batzordea 21**). Aukera hori baliagarria izan daiteke, baina beste azpibatzerde batzuk sortzea beharrezkoa den baloratu beharko litzateke. Azpibatzerde horiek irizpide hauen arabera antolatuko lirateke:

- **sektorearen arabera**: batzorde teknikoa, politikoa eta soziala,
- **funtzioaren arabera**: Adibidez: publizitate- eta komunikazio-batzordea; herritarren mobilizaziorako batzordea; proiektuak egiteko batzordea; etab.

Non gauden jakitea

Prozesuaren testuinguruari buruzko txostena egitea, prozesuaren diseinurako udalerraren alderdirik garrantzitsuenak identifikatzeko. Lehen udalerrimota (landatarra, hiritarra...) eta -tamaina aipatu ditugu. Gehiago zehazteko, hona hemen aldagai baliagarri batzuk testuinguruaren karakterizatzeko:

- Ezaugarri sozialak eta demografikoak (biztanle-kopurua, errenta-maila, hezkuntza-maila, lan-egoera).
- Hiri-egitura (trinkoa vs sakabanatua).
- Egoera politiko (alderdiak, ordezkaritza udalean).
- Parte-hartzearen aurrekariak (asoziazionismo-maila; lehendik dauden mekanismoak eta prozesuak; sektore sozialeko eragileen eta soziogramaren arteko harremana).

Elkarrizketa eta **eztabaida-talde**en gisako teknikek testuinguru hori osatzen lagun diezaguke, datu estatistikoak biltzen laguntzeaz gain. Hala ere, helburua ez da herriko errealitate politikoaren eta sozialaren analisi zehatza egitea, parte hartzeko prozesuaren garapena zehazten duten oinarrizko alderdiak identifikatzea

baizik eta, horrekin batera, sor daitezkeen arazoak eta inguruneak eskaintzen dizkigun potentzialtasunak aurreikustea. Lan hori bi alderditan oinarri daiteke:

- Garapen iraunkorrerako garrantzizkoak diren egi-leen, egituren eta harremanen **soziograma**.
- **AMIA analisia**, parte hartzeko prozesuaren garapenean kontuan izan behar diren ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzeko.

Parte hartzeko prozesua diseinatzea eta martxan jartzea

Tokiko Agenda 21en prozesua ezagutaraztea eta sustatzea

Ez dago parte-hartzerik komunikaziorik gabe. Ezinbestekoa da prozesua agerikoa eta ulergarria izatea herritarrentzat eta eragile politiko, ekonomiko eta sozialentzat, zeren eta, jendeak prozesua ezagutzen baldin badu, hura onartzeko, han parte hartzeko edo konprometitzeko aukera gehiago egongo da.

Tokiko Agenda 21en prozesua ezagutaraztearen eta sustatzearen helburua herritarren eta hainbat eragile sozialen 'konplizitatea' lortzea da, eta hori horietako bakoitzarekin komunikazio-kanalak ezarriz lor dezakegu. Hona hemen erabil ditzakegun mekanismo batzuk:

Komunikazioari dagokionez, alderdi garrantzitsu batzuk hartu behar dira kontuan:

- Herritarrekiko eta erakundeekiko harremanak ez luke une jakin batekoa bakarrik izan behar; **prozesu guztian aldizka informatzeak** herriak Tokiko Agenda 21en duen konfiantza sendotzen lagunduko du.
- **Sare soziala** (erakundeak, talde informalak) Tokiko Agenda 21en **parte hartzeko** funtsezko **mobilizazio-eragilea** da, eta, horregatik, publizitate-estrategietan duen zeregina oinarritzkoa da.
- Herritarrei eta gainerako sektore sozialei bidaltzen zaizkien mezuek bertako **hizkuntza, tradizio adierazgarriak eta udalean dauden komunikazio-prozesuak eta parte hartzeko prozesuak integratu behar dituzte**. Gauza ez da parte hartzeko prozesua ezartzea, baizik eta herriko errealitatera egokitzea.
- Informazioa baliagarriagoa izan dadin eta hartzailleetara modu eraginkorragoan irits dadin garrantzitsua da **alderdirik konplexuenak itzultzea**. Hau da, Tokiko Agenda 21en eta parte hartzeko prozesuaren alderdi teknikoak, hain zuzen, herritar gehienek ulertzeko moduko azalpen zabala bihurtzea, bai helburuei dagokionez, bai eta helburu horiek lortzen lagunduko duten mekanismoei dagokionez ere. Helburua **hizkuntza soila** erabiltzea da, eguneroko bizitzatik hurbil dagoena.
- Herriko komunitate osora iristeko, **hizkuntzak egokitu** behar dira eta informazio-kanalak bereizi behar dira **sektore-** eta sentsibilizazio-aukera zabalera iristeko.

GUNEAK	MEKANISMOAK
Komunikabideak: tokiko prentsa, irrata eta telebista	Iragarki laburrak
Etxeak	Postontzietan informazioa banatzea Pertzepzio-inkestak
Kalea	Dibulgazio-kanpainak (kartelak eta megafonia mugikorra) Jai-giroko ekitaldiak/animazioak
Saltokiak: udal-merkatua, tabernak, saltoki txikiak, merkataritza-zentroak...	Dibulgazio-kanpainak (kartelak eta informazio-triptikoak banatzea; Tokiko Agenda 21en aurkezpen-saioak hainbat elkarterentzat; saltzaileak beren bezeroentzako informazio-agente bihurtzeko)
Enpresak: bertakoak eta kanpoko kapitala dutenak (enpresa txikia eta ertaina, multinazionalak); enpresaburuak elkarrekin	Tokiko Agenda 21en aurkezpen-gutunak udalerriko enpresentzat eta enpresa-elkarrekin; udalerriko sektore ekonomikoari zuzendutako informazio-saioak
Gune kulturalak eta aisialdikoak: ikastetxeak, gizarte-etxeak, antzokiak, kontzertuak, dantzalekuak...	Dibulgazio-kanpainak (kartelak eta triptikoak; aurkezpen-saioak elkarrekin; ekintza kulturalak eta aisialdikoak)
Udalerriko osoa	Informazio-telefonoak, web orriak Tokiko Agenda 21en jardunaldi irekiak

4. taula. Tokiko Agenda 21en dibulgaziorako guneak eta mekanismoak.

- Udalerriko Tokiko Agenda 21en **parte hartzea erakargarria** izaten saiatu behar gara. Informazioa emateko moduak prozesuarekiko interesa piztu behar du herritarren eta erakundeen artean eta parte hartzeak dakartzan abantailak azpimarratu behar dira (adibidez, Tokiko Agenda 21en laguntzen duten enpresa edo erakundeek izen hobea lortzea, udalerrinari hobekuntza ekartzeagatik).

Prozesuaren faseen arabera antolatzea: Diagnostikoa, ekintza-plana eta ezarpena

Tokiko Agenda 21eko fase bakoitzerako tresnarik egoki-enak aukeratu behar ditugu, aurreko kapituluan bakoitzarentzat egin dugun karakterizazioa kontuan hartuz. Tokiko Agenda 21 **diseinatzeko tresnak** eta **segimendua eta ezarpena egiteko tresnak** bereiziko ditugu. Eta Tokiko Agenda 21en diseinu-prozesuaren barruan, diagnostikoa egiteko tresnak eta ekintza-plana egiteko tresnak bereiziko ditugu.

Prozesuaren fase bakoitzerako behar diren tresnak egokitzeaz gain, tresna horien hautaketa beste gai batzuek ere mugatzen dute. Besteak beste, hauek azpimarratu behar dira:

• Parte-hartzearen subjektua:

- **Herritar arruntak:** parte hartzeko mekanismo zehatzak eta ez oso zorrotzak dedikazioari, informazioari edo konplexutasun teknikoari eta linguistikoari dagokionez (galdera-sortak, elkarrizketak, herritarrez osatutako epaimahaiak, iraupen laburreko tailerrak edo foroak, eztabaida-taldeak...).
- **Herritar-multzo antolatuak eta/edo erabat informatuak:** parte-hartze jarraitu eta egonkorreko mekanismoak, informazio gehiago eta konplexutasun tekniko handiagokoa lantzeko aukera emango duena (lan-taldeak, batzordeak 21).

• Parte-hartzearen testuingurua:

- **Udalerririk txiki eta landatarretan,** asanbladaren gisako mekanismo zentralizatuagoak erabiltzeko aukera dugu, alegia, eztabaidarako mekanismoak; hala ere, parte-hartzaileei, hala nahi badute, anonimatu egoteko aukera ematen dien beste mekanismo batzuk ere kontuan hartu beharko dira (elkarrizketa pertsonalak, erreferenduma...).
- **Tamaina handiagoko udalerririk hiritarretan,** mekanismo zentralizatuak eta deszentralizatuak konbinatu beharko dira; oinarri asoziatiboa duten mekanismoak, mekanismo mistoak (erakundeekin eta gizabanako pertsonekin) eta oinarri pertsonalekoak (ausaz hautatutako herritarrekin); ordezkapeneko mekanismoak (galdera-sortak eztabaida-mekanismoekin (foroak, eztabaida-taldeak, etab.) konbinatu beharko dira.
- **Asoziazionismo-mailaren arabera,** erakundeen ordezkapena duten mekanismoak erabili ahal izango ditugu, nahiz eta kontuan hartu beharko den

udal-antolakuntzan behar bezala ordezkaturik ez dauden kolektibo adierazgarriak badagoen eta nola integra daitekeen.

- Baliteke lehenagotik parte-hartzearen bidez eztabaidatu diren gaiak egotea; kasu horretan, gai horiei buruz berriro eztabaidatu behar den edo ez, eta norekin eztabaidatu behar den aztertu beharko da. **Aurretiko parte hartzeko egiturak** egongo dira (adibidez, ingurumen-kontseilua) eta horietaz baliatu ahal izango da prozesua zuzentzeko eta hari egonkortasuna emateko. Egitura paralelo berriak sortzeak lehendik dauden egiturekin nolabaiteko tentsioa sor lezake. Beste kasu batzuetan, berriz, aurreko egiturek parte-hartze handirik izan ez badute, hobe da egitura horiek ez erabiltzea, prozesuak eragin negatiboa izan ez dezan.

Azkenik, garrantzitsua izango da Tokiko Agenda 21en prozesuan herritarren edo erakundeen eta udalaren artean sortu diren parte hartzeko guneak sendotzea eta horretarako baliabideak izatea, prozesu horren aurretik zeudenak ahaztu gabe. Bi estrategia hauek erabil ditzakegu, besteak beste:

- **Bulegoa 21** edo **segimendu-batzordea** sortzea edo Tokiko Agenda 21en testuinguruan sortu den parte hartzeko mekanismoari jarraipena ematea (iraunkortasun-foroa, batzorde sustatzailea, ingurumenaren eta iraunkortasunaren udal-kontseilua) prozesuaren ezarpenaren segimendua egiteko. Tokiko Agenda 21 dokumentua onartutakoan, egitura antolatzailea eta funtzionamendua zehaztea (parte-hartzaileak, bilera-kopurua, autonomia-maila udalarekiko), baita proposatutako ekintzak gauzatzeko edukiko dituen baliabideak ere (giza baliabideak, baliabide teknikoak eta ekonomikoak).
- Tokiko ekintza-planean aurreikusitako ekintzak gauzatzeko, **udal-antolakuntzan egokitzapenak** egingo diren zehaztea.



AURRETIKO DEFINIZIOA

Helburuen definizioa

Parte hartzeko prozesuaren helburuak zehaztea, oinarritzko akordioak lortzea



Bi aldeko bilerak
Informazio-saioak eta eztabaida-saioak

Testuinguruaren analisia

Non gauden jakitea
Parte hartzeko prozesuaren testuingurua zehaztea



Soziograma egitea
AMIA analisia

PARTE HARTZEKO PROZESUAREN DISEINUA

Tokiko Agenda 21en aurkezpena

Tokiko Agenda 21en prozesua ezagutaraztea
Herritarrak parte hartzera bultzatzea



Tokiko Agenda 21en jardunaldi irekiak
Dibulgazio-kanpainak; Informazio-telefonoak; web orriak

Diagnostikoa

Udalerriko arazoak ezagutzea



Inkestak, elkarrizketak, foroak, EASW tailerrak, ingurumenaren udal-kontseiluak

Tokiko Ekintza-plana

Iraunkortasunerako estrategiak eta ekintzak planifikatzea



EASW tailerrak, herritarren epaimahaiak foroak, kontseiluak, batzordeak, partaidetza-aurrekontuak

Ezarpena eta segimendua

Ekintzak gauzatzea
Prozesuaren jarraipena egitea
Sortutako parte hartzeko guneak indartzea
Parte hartzeko prozesuari jarraipena ematea



Inkestak, elkarrizketak
Foro iraunkorrak, Batzorde sustatzaileak
Bulegoa 21
Udal-kontseiluak

6.3. Prozesuaren ebaluazioa

Tokiko Agenda 21eko parte hartzeko prozesuaren diseinurako aipatu ditugun oinarritzko irizpideen bidez, prozesuaren beraren ebaluazioa egiteko esparru orokorra sor dezakegu. Hala, prozesuak zenbateraino funtzionatu duen baloratzeko aukera emango diguten oinarritzko aldagai batzuk zehaztu ahal izango ditugu, gida honetan luze aztertu ditugun kontzeptu batzuk azpimarratuz.

Aldagai horiek definitu aurretik, alderdi hauek azpimarratzea komeni da:

- Aldagai horien **interpretazioa** dagokion **testuinguruan** egin behar da (udalerraren ezaugarrien eta parte-hartzearen aurrekarien arabera).
- Helburua ez da adierazle batzuk lortzea soilik, baizik eta lortutako **emaitzen zergatia ulertzea**: zertan huts egin den, zer hobe daitekeen eta zein joera sendotu behar den.
- Beraz, ebaluazioaren helburuak batik bat prozesuko **neurri zuzentzaileak identifikatzea** izan behar du: xede konstruktiboa izan behar du.

a) Esparru orokorra

- **Parte hartzeko prozesuaren inguruko akordio politikoaren maila**: Zein eta zenbat alderdi konprometitu dira prozesuarekin? Zein eta zenbat ez dira nahasi? Eta, zein adierazi dira modu irekian haren aurka?
- **Akordio sozialaren maila**: Zein eta zenbat eragile sozial konprometitu dira aktiboki prozesuan? Zein ez? Zenbat agertu dira aurka? (eragile sustatzaile eta prozesuaren dinamizatzaile gisa izan duten parte-hartzea esan nahi dugu, eta ez gune batean edo bestean izan duten parte-hartzea).
- **Zeharkakotasun-maila**: Administrazioa zein arlok hartu dute parte prozesuaren diseinuan eta sustapenean eta zeinek ez? Zein jarrera erakutsi dute langile teknikoek eta politikoez prozesuarekiko?

b) Mobilizazioa

- **Parte-hartzearen maila**: Zenbatek parte hartu dute eta zein gunetan?
- **Ordezkaritza-maila**: Zein da parte-hartzaileen profila? Zein taldek izan du parte-hartze handiagoa eta zeinek txikiagoa? Zein gunetan? Zein pertsona-motak (adina, sexua, prestakuntza-maila...) izan du parte-hartze handiagoa eta zeinek txikiagoa? Zein gunetan?
- **Beste alderdi batzuk**: adibidez, publizitaterako zein tresna erabili dira? Zein ezagutza-maila dute herritarrak prozesuarekiko?

c) Eztatidetakoko dinamika

- **Informazioa**: Zein informazio eman zaie parte-hartzaileei? Zenbateko aurrerapenarekin? Zein iturri erabili dira? Informazioaren zein balorazioa egin dute parte-hartzaileek aurrerapenari, ulergarritasunari, zehaztasunari eta aniztasunari dagokionez?
- **Eztatidetakoa**: Eztatidetakoko zenbat gune sortu dira? Zein izan dira gune bakoitzeko protagonistak? Nola moldatu dira kolektiboak (taldeak, pertsonak...) gune bakoitzean? Iritzi batzuk beste batzuk baino gehiago indar handiagoaz adierazi dira sistematikoki? Zenbat ekarpen egin dira eta zein mailatan? Zenbateraino eragin du horrek erabakiak hartzean?

d) Parte-hartzearen emaitzak eta ondorioak

- **Eragina politikan**: Zein erabaki hartu dira parte hartzeko prozesuaren testuinguruan? Espezi-fikoak, generikoak? Zein eta zenbat adierazi dira erabaki politikoetan? Zergatik? Zein epetan ezarri dira?
- **Parte hartzeko kultura sortzea**: Zein balorazio orokor egin dute parte-hartzaileek prozesuarekiko? Prest daude gisa horretako gune berrietan berriro konprometitzeko? Prozesuak parte hartzeko dinamika berriak sortu ditu? Segimendurako erakunde sendoak eratu dira?

Aldagai horiek 5. taulako adierazle kuantitatiboaren zerrenda baten bidez zehatz daitezke (dena den, beti ezingo da prozesua halako zehaztasunez ebaluatu, eta adierazle horiek guztiak ez dira ezinbestekoak, adibide gisa erakusten dira).

Zenbakizko adierazle horiek eragileek (politikoak, sozialak, teknikoak, parte-hartzaileak) prozesuari buruz egindako balorazioak dituzten adierazle kualitatiboekin osa daitezke. Prozesuaren pertzepzioari buruzko galdera-sortak une batean edo bestean zuzenean parte hartu duten eragileei ematea baliagarria izan daiteke alderdi hauek baloratzeko:

- **Akordio politikoaren** maila prozesuan
- **Akordio sozialaren** maila
- **Akordio teknikoaren** maila
- Adierazitako **helburuen argitasuna**
- Parte-hartzaileen **bolumena** eta **ordezkaritza-maila**
- Emandako **informazioa**
- Eztatidetakoko **dinamikak**
- **Emaitzak**: proposameneren kalitatea, horien izaera berritzailea eta aplikagarritasun-maila
- **Ondorioak**: parte hartzea sustatzen duen kultura lortzeko prozesuaren gaitasuna
- **Eragile antolatzailearen** balorazio orokorra eta haren neutraltasuna
- Prozesuaren **publizitatearen** balorazioa

DIMENTSIOA	ADIERAZLEAK
Esparru orokorra	<ul style="list-style-type: none"> • Udalean ordezkaritza duten alderdien proportzioa segimendu-batzordean • Ordezkari politikoen proportzioa karguaren arabera • Lehen informazio-bileran parte hartu duten erakundeen kopurua; portzentajea gonbit egin zaienekiko; kopurua motaren arabera (bigarren edo lehen mailakoa; arloa) • Segimendu-batzordean parte hartu duten erakundeen kopurua; portzentajea gonbit egin zaienekiko; kopurua motaren arabera (bigarren edo lehen mailakoa; arloa) • Zeharkako batzordean parte hartu duten arloen kopurua (proportzioa udaleko arlo guztiekiko) • Ordezkari instituzionalen proportzioa karguaren arabera (teknikariak –zein kargurekin– eta/edo politikariak)
Mobilizazioa	<ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartzaile kopurua parte hartzeko guneen arabera • Parte-hartzaileen profila, parte hartzeko guneen arabera: adina, sexua, prestakuntza-maila, bizi diren auzoa, lanbidea, zein arlotakoak (asoziatiboa, teknikoa, politikoa, profesionala, herritarra) • Publizitatera zuzendutako baliabide-bolumena: guztira eta jardueren arabera
Eztabaidetako dinamika	<ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartzaileei emandako informazio-dokumentuen kopurua parte hartzeko fasearen eta gunearen arabera. Beste aldagai batzuk: orrialde-kopurua; noiz jaso den eztabaidaren datari dagokionez; informazioa zein eragilek eman duen. • Eztabaidarako gune-kopurua faseen eta motaren arabera • Parte hartzeko guneko ekarpen-kopurua, parte-hartzaileen profilaren arabera (ezingo da beti kuantifikatu)
Emaitzak ondorioak	<ul style="list-style-type: none"> • Egindako txosten-kopurua motaren arabera (aurretikoak, partzialak, bukaerakoak) eta fasearen arabera • Txosten horietako proposamen-kopurua, motaren arabera: Adibidez: orokorrak, estrategikoak edo espezifikoak; ezartzeko aurreikusitako eremuaren arabera; kostuen kalkuluaren arabera; parte hartu duten eragile-motaren arabera

5. taula. Parte hartzea ebaluatzeko adierazleak.

Iturria: Guk egina.

Galdera-sorta horien emaitzak prozesuko hainbat ebaluazio-foroetan adierazitako iritziekin osa daitezke, foro horiek prozesuaren edo parte hartzeko guneen organo sustatzaileak edo segimendurako organoak izan (interesgarria izan daiteke eztabaiden azken zatian auto-ebaluazio egiteko tarte bat uztea).

Amaitzeko, interesgarria izan daiteke, halaber, herritarrek zenbateraino ezagutzen duten prozesua, emaitzak eta lortu nahi dena ebaluatzea.





7. Bibliografia eta Erreferentziak

7.1. Bibliografia

- ALIÓ, Ma. A. eta OLIVELLA, M. (koord.) *Per viure bé nosaltres i les generacions que vindran. Com prendre part a fer sostenibles els nostres pobles i ciutats*. Bartzelona: Diputació de Barcelona, 1999
- DIPUTACIÓ DE BARCELONA (2000-2003). *Els processos de l'Agenda 21 Local en els municipis de Barcelona. V. La participació i l'Agenda 21 Local*. Colección Manuales, 10. zk.
- FONT, J.; BLANCO, I. (2003). *Polis, la ciutat participativa. Participar en els municipis: qui, com i perquè?*. *Papers de Participació Ciutadana*, 9. Diputació de Barcelona.
- FONT, N. i J. SUBIRATS (koord.). (2000). *Local y sostenible*. Icària, Bartzelona.
- HERAS, F. (2002). *EntreTantos. Guía práctica para dinamizar procesos participativos sobre problemas ambientales y sostenibilidad*. Gea scl.
- SUBIRATS, J. (1997). *Democràcia: Participació i Eficiència*, en *Revista CIFA*, 6. zk. Bartzelona.
- YOUNG, S.R. (1996) *Promoting participation and Community-based Partnerships in the context of Local Agenda 21: A Report for Practitioners*. Manchester University.

7.2. Interneteko guneak

Parte hartzeko demokraziaren nazioarteko behatokia

<http://www.bcn.es/observatori/>

Porto Alegreko hiritarren partaidetzarako aurrekontuen esperientzia

<http://www.portoalegre.rs.gov.br>

Euskadiko Garapen Iraunkorra

<http://www.ingurumena.net/>

Euskadiko Tokiko Garapen Iraunkorra

<http://www.ingurumena.net/udala>

Bartzelonako Agenda XXI

<http://www.bcn.es/agenda21>